
**Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia
1998**




**Memoria
1998**


**Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia**



**Mémoire
1998**

**Académie de la Langue Basque
Euskaltzaindia**







Euskaltzaindiaren
Oroitidazkia

1998

Bilbo, 1999

Testu-idazketa: J.L. Lizundia, P. Telleria, I. Rekalde
Testu gainbegiratzea: Patxi Goenaga

© Euskaltzaindia
Plaza Barria, 15. 48005 Bilbo
E-mail: info@euskaltzaindia.net

Fotokonposizioa: Ikur, S.A.
Cuevas de Ekain, 3, 1º. 48005 Bilbo

Inprimategia: A. G. Rontegui, S.A.L.
Avda. Ribera de Erandio, 4. 48950 Erandio (Bizkaia)

Legezko Gordailua: BI-2768-99

AURKIBIDEA

Aurkezpena	7
I. Ekintza orokorrak	9
I.1. Ospakizun akademikoak	11
I.2. Akademiaren ekintza nagusiak eta bestelako erabakiak	19
I.3. Hizkuntza erabakiak	29
II. Sailak eta batzordeak	31
Batzorde-lana, lan-metodologia, bilerak	33
II.1. <i>Iker</i> Saileko batzordeak	35
II.1.1. Hiztegi-gintza batzordea	35
II.1.1.1. <i>Orotariko Euskal Hiztegia</i> (OEH)	35
II.1.1.2. Hiztegi Batuko lantaldea	39
II.1.2. Gramatika batzordea	41
II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea (Euskal Herriko Hizkuntz Atlas) .	43
II.1.4. Onomastika batzordea	49
II.1.5. Literatura batzordea	55
II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzerdea	55
II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea	57
II.1.6. Batzorde suntsikorak	59
II.1.6.1. Euskara Batuko batzordea	59
II.1.6.2. Ahoskera azpibatzerdea	63
II.2. <i>Jagon</i> Saileko batzordea	65
III. Erakunde zerbitzuak	69
III.1. Sarrera	71
III.2. Egoitza	73
III.3. Ordezkaritzak	75
III.3.1. Donostiakoa	75
III.3.2. Gasteizkoa	77
III.3.3. Iruñekoa	79
III.3.4. Baionakoa	81
III.4. Azkue Biblioteka	83
III.4.1. Azkue Biblioteka zerbitzua	83

III.4.2. Azkue Biblioteka batzordea	87
III.5. Argitalpenak	89
III.5.1. Argitalpen batzordea	89
III.5.2. Argitalpenen banaketa zerbitzua	93
IV. Aurrekontuak	97
V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak	101
V.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia	103
V.2. Udalak	105
V.3. Euskal Herriko Unibertsitatea	107
VI. Euskaltzaindiaren organigrama	325
VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak	327
VI.2. Batzordeen zerrenda	329
VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama	333
VI.4. Bulegoen helbideak	337

Aurkezpena

Euskaltzaindiaren helburu nagusiak euskararen gramatika arauak ikertzea, lexikoa barne, eta literatur hizkera batua gauzatzea dira, alde batetik, eta hizkuntzaren erabilera bultzatzea eta euskaldunen hizkuntza eskubideak zaintzea, bestetik. Bata Euskaltzaindiaren Iker sailaren ardura da. Bestea, Jagon sailarena.

Euskaltzaindiak batasungintzan eman duen urrats nagusia 1968an eman zuen Arantzazun. Han markatu ziren geroko ildoak. "Euskaltzaindiak hartu zuen noraezean hartu behar zuen erabakia, –zioen Mitxelenak 1978an– artean mila arrazoi edo atxakia zirela medio (lotsa gaiztoa, zeresanen beldurra, bake-itxurak gorde nahia bakerik ez zen lekuan...) hartu ez zuena. Erabakirik onena hartu zuen Euskal Herriari, euskaldun guztiak minduko bazituen ere, aspaldixko zor ziona: batasun bidetik, gerotik gerora ibili gabe, gogotik eta deliberatuki abiatzea."

Hogeita hamar urte pasa dira eta Euskaltzaindiak ez dio uko egin han hartutako bideari. Hain zuzen, urte hauetan egingako lana nolabait aitortuz, omenaldia eskaini zion Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak Euskaltzaindiari. Duela hogei urte Euskaltzaindiak berak asmatutako Bai Euskarari lelopean eskaini ere.

Literatur hizkuntza batzea eginkizun nagusizat harturik, tinko eusten dio Euskaltzaindiak bere konpromisoari. Hala ere, zenbaiten ustez motelegi doa Euskaltzaindia. Beste zenbaiten iritziz, arautu behar ez direnak ere arautzen ari da. Jende askok, berriz, dio Euskaltzaindia arau gehiegi ari dela aldatzen.

Argi dago hartu beharreko erabakiak ezin direla, maiz, zirt-zart hartu: datuak bilatu behar dira, erabakigai baten aldeko eta kontrako argudioak behar bezala neurtu... Ongi hartutako erabakiak denbora eskatzen du eta, hori, munduan diren baliabide guztiak izanik ere, hala izaten da. Baliabideak nahi bezain oparoak ez direnean are gehiago.

Arautzen den guztia arautu beharrik ba ote da? Egiantan, literatur hizkuntza batu bat taxutu nahi bada, araugintzari ezin ihes egin. 1998. urteko arau gehienak hiztegiaren inguruan ibili dira. Esparru honetan Euskaltzaindia behar ez den lantegian ari dela ezin esan. Alor honetan dagoen premia nabarmena baita.

Hirugarren "salaketa" dela eta, argi esan behar da Euskaltzaindiak oso gai gutxitan aldatu duela bere iritzia. Besterik da euskara batutzat eta Euskaltzaindiaren arautzat "sal-dutako" zenbait ideia eta iritzi zuzentzera baldin badator noiz-pait Euskaltzaindia. Hori ere gertatzen baita.

Hizkuntzaren batasun bideak lantzen ari da, hortaz, Euskaltzaindia. Hori ikerketarik gabe ezina da. Euskaltzaindiak bere-berea duen ikerketa lan hau, hiztegegintzan, gramatikan, onomastikan, dialektologian edo ahoskeran, batzordeen bidez egiten du Euskaltzaindiak. Eta ikerketan ongi oinarriturik hartzen ditu gero bere erabakiak, hileroko bilkuretan.

Baina ikerketaz eta araugintzaz gainera, euskaldunon hizkuntza eskubideak zaintzea ere bere egitekotzat du Euskaltzaindiak, erabiltzen den hizkuntzaren kalitatea zaintzea bezala. Eginbehar horiek dagozkio Jagon sailari eta horretan dihardu azken urteotan.

Orrialde hauek Euskaltzaindiaren ispilu izan nahi lukete, bereziki 1998. urtean egindako lanen berri emanez: batzordeen lanen nondik norakoa, gertaera nagusiak, ospakizunak eta abar. Oroitidazki honetan, Erakundearen ibilbidea zein izan den erakutsi nahi da.

Batzordeen lanari orrialde ugari eskaintzen zaizkio. Zail da horietako bat besteen gainetik nabarmentzea. Ospakizun akademiko bereziei dagokienez, berriz, han hemenka, Euskal Herrian zehar egindako hainbat aipa litezke: Añibarroren 250. urteurrena dela eta, V. Gramatika Jardunaldiak egin dira Areatzan. Aizkibelen II. mendeurrena ere goraki ospatu du Euskaltzaindiak Azkoitian. Donezteben, berriz, II. Euskalegunen 75. urteurrena. Herri honetan, ohiko bileraz eta jendaurreko ekitaldiaz aparte, IV. Ahoskera Jardunaldiak eta III. Jagon Topaketak ere egin dira. Honek guztiak argi erakusten du Euskaltzaindia ez dela bolizko dorrean bizi den erakundea, inguruan zer gertatzen den ongi erreparatzen duena baizik.

Euskaltzaindiaren organigrama ere jasotzen da liburu honetan. Azken batean, horrelako erakunde guztietan bezala, pertsonak ditugu atzean. Hauek ditugu lanaren euskarri. Pertsonak aipatu ditugu, baina bada izen bat bereziki aipatu beharrekoa: Federiko Krutwig. Euskaltzain dekanoa genuena galdu baitu Euskaltzaindiak.

Baina berriak ere badatoz. Hain zuzen, aurten egin du Andres Urrutia euskaltzain berriak bere sarrera.

Euskaltzaindiaren diru kontuen berri ere ematen da liburu honetan. Alde honetatik, diru laguntzak sekula ere behar adinakoak izaten ez diren arren, esan dezagun poliki-poliki Euskaltzaindia ere bere diru iturriak ziurtatzen ari dela. Nafarroako eta EAE-ko Herri Aginteengandik ez ezik, udalak ere gero eta konprometituago ageri zaizkigu.

Argitalpenei dagokienez, berriz, urtero argitara ohi direnez gainera, behar bada Euskal Deituren Izendegia aipa liteke, Euskaltzaindiak prestatua eta Justizia Ministerioak eta Justizia Sailak argitaratua.

Ez du gehiago luzatzea merezi. Hemen duzu, irakurle, Euskaltzaindiak 1998. urtean euskararen Herriari eskaini nahi izan dion lanaren erakusgarri gisa Oroitidazki hau.

Patxi Goenaga,
idazkaria

I. Ekintza orokorrak

I.1. Ospakizun akademikoak

I.2. Akademiaren ekintza nagusiak eta bestelako erabakiak

I.3. Hizkuntz Arauak

I.1. OSPAKIZUN AKADEMIKOAK

Urtarrila

Maria Dolores Agirrereren hilberri txostena

Mikel Atxagak Maria Dolores Agirre euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurri du arratsaldeko bilkuraren bukaeran. Hizlariak Agirrereri izan dion miresmena eta hark ordezkatzeko duen belaunaldiari dion zorra aitortu du.

Otsaila

Andres Urrutia euskaltzainaren sarrera-hitzaldia

Bilboko egoitzan, otsailaren 27an, Andres Urrutia Badiola euskaltzainaren sarrera-hitzaldia dela eta, ekitaldi berezia izan da. Patxi Goenaga idazkariak, Euskaltzaindiak goizeko hileroko batzarean hartutako erabakien eta tratatu diren gaien berri eman ondoren, protokoloak agindu bezala, eus-



Euskaltzaindiaren egoitzan, 1998-II-24an: Andres Urrutia Badiola euskaltzain osoa sarrera-hitzaldia irakurtzen.

kaltzainburuaren aurkezpen-hitzen jarraian, bi euskaltzain irten dira aretotik euskaltzain berriaren bila, Luis Villasante -proposatzaileetariko bat- eta Patxi Goenaga sarrera-hitzaldia egindako azkena. Bertan, Andres Urrutiak "Legearen zirrikituetatik barrena: ahozkotik idatzizkora" izeneko hitzaldia irakurri du. Ondoren, Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak erantzun dio "Andres Urrutia Badiola euskaltzain berriaren sarrera hitzaldiari erantzuna" izenburuko txostena irakurriaz.

Hitzaldien ondoren, euskaltzainburuak diploma eta domina eman dizkio Andres Urrutia Badiola euskaltzainari.

Martxoa

Josef Frantzisko Aizkibelen II. Mendeurrena

Azkoitian, martxoaren 27an, Nerea Zubizarreta alkate andrearen ongietorriaz hasi da Aizkibelen II. Mendeurrenaz ospatu den ekitaldia. Haren hitzetan, Azkoitiko herriak ez du sekula omenduaren lana ahaztu. Horren lekuko, Liburutegi berriak eta kale batek daramate haren izena. Gero, urtean zehar egingo diren ekitaldiak aipatu ditu: erakusketak, hitzaldiak, euskara ikertzeko bekaren sorrera, eta abar.



Azkoitiko Udaletxean, Aizkibelen II. mendeurrenean, 1998-III-27an: Euskaltzaindiaren osoko bilkura.

Euskaltzaindiari dagokionez, Jose Maria Satrustegi eta Henrike Knörr euskaltzainek eman dute hitzaldi bana: "Aizkibel: Argien Mendeko azkoitiarra (1798-1865)" eta "Aizkibel Bibliografiagile". Aurretik Euskaltzainburuak gogoratu du Aizkibel aintzindaria izan zela euskal Akademiaren beharra ikusten baitzuen: "... literatura hizkuntza bat, denek uler zezaketen hizkuntza. Bi menderen buruan Aizkibel-en ametsa gauzatu da eta bereziki gure belaunaldia aurrera doa bere lanekin".

Omenaldiaren bukaeran, Azkoitiko Udaletxean, Xabier Munibe ikastolako "Bertso eskola-ko" kideek Iparragirrearen bertsoak kantatu dituzte.

Apirila


Ohorezko euskaltzain berriak

Apirilaren 24ko ageriko batzarrean, ohorezko euskaltzain berrien diplomak banaketa egin da. Honako jaun-andre hauek izan dira izendatuak Arautegiaren 39. artikulua arabera:

Jesus Atxa Agirre, Julene Berrojalbiz eta Karmele Esnal Zulaika: Nafarroan, Bizkaian eta Gipuzkoan euskal irakaskuntza arloan euskarari mesede bikainak egindako lagunak. Ikastola munduan sortzaile, bultzatzaile eta irakasle izanak.

Iparraldeko Mari-Jeanne Minaberri: haur-literaturan sortzailea. Ipuinak idazteaz gain beste askoren itzulpenak ere egin ditu.

Jaime Kerexeta Gallastegi, Xabier Gereño Arrate eta Karmelo Etxenagusia Uribe: hirurok euskal idazle, euskal liburu askoren egile eta itzultzaileak. Horrezaz gain, Kerexeta eta



Euskaltzaindiaren egoitza aurrean, 1998-IV-24an, ohorezko euskaltzainei diploma emate egunean; ezkerretik eskuinera: Isabel Andia (Julita Berrojalbizzen alaba), Eugenio Agirretxe, Karmelo Etxenagusia, Jose Antonio Loidi, Karmele Esnal, Jesus Atxa, Xabier Gereño.


Etxenagusia Biblia eta liturgia testuetan euskarak bere lekua izateko sortzaile, bultzatzaile eta maisu izan dira. Xabier Gereñok, euskal kulturaren bultzatzailearik aspergaitzenetarikoa izanik, duela 50 urte gerra osteko lehen euskara ikasteko klaseak sortu zituen.

Jose Antonio Loidi Bizkarrondo eta Eugenio Agirretxe Azpillaga, euskaltzain urgazle zaharrenak dira gaur egun. Horrez gain, lehena, idazle eta nobelagile trebea; bigarrena, azken belau-naldietako euskal predikaririk bikainenetarikoa, idazlea eta irakaslea.

William Anthony Douglas, Renoko "Basque Studies Program" izeneko Saila sortu zuen Nevadako Unibertsitatean eta liburu eta artikulu ugari egin ditu, *Death in Murelaga* (1970) eta *Amerikanuak* (1975), besteren artean.

Hilberri txostenak

Jose M. Satrustegik Jose Maria Azpiroz euskaltzain urgazlearen omenez idatzitako hilberri txostena irakurri du. Txostenean, haren apaiz eta euskaltzale alderdiak azpimarratu dira.



Egoitzan, 1998-IV-24an: Abel Muniategi, Jesus Oleagaren hilberri-txostena irakurtzen.

Abel Muniategik Jesus Oleaga euskaltzain urgazlearen hilberri txostena irakurri du ondoren, legegizon eta euskaltzale bezala egin zituen lanak aipatuz.

Maiatza

Baionako Euskaltzaindiaren ordezkari batzarraren inaugurazioa dela eta, maiatzaren 29an egin da Udal Bibliotekan ageriko batzarra. Euskaltzain osoez eta hainbat urgazlez gain, Michel Intxauspe diputatu eta kontseilari orokorrak, kazetariak eta entzule ugari parte hartu dute ekitaldi honetan. Ekintzen artean hauek izan dira aipagarrienak:

Garcia Larratxe familiari eskerrak

Euskaltzainburuak Garcia Larratxe senideei eskerrak eman dizkie erakundearen izenean, datozen bi urteetarako Thiers kaleko etxea Euskaltzaindiari uzteagatik.

Tomas Uthurri euskaltzain urgazlearen hilberri txostena

Pierre Andiazabal-ek Tomas Uthurri euskaltzain urgazle zenaren omenez txosten bat irakurri du, apaiz eta irakasle zuberotar honen bizitza eta lanak gogoraziz: Zuberoako gazteriaz izandako ardura eta kontzilio aurretik liturgia testuen euskal itzultzaile izana, besteak beste.

Uztaila

Pedro Antonio Añibarroren 250. urteurrena

Areatzako Udaletxean, uztailearen 23an, Pedro Antonio Añibarroren 250. urteurrena ospatu da. Ekitaldiaren hasiera Enrike Etxebarria alkatearen eskutik egin da. Ondoren Jean Haritschelhar euskaltzainburuak bilkuraren zergatia azaldu du. Omenduari buruzko honako hitzaldi hauek eman dira:

- "Pedro Antonio Añibarro (1748-1830)", Luis Villasante euskaltzainak.
- "Pedro Antonio Añibarro, euskal idazle, gramatikari eta hiztegitzaile", Blanca Urgellek.



Areatzan, 1998-VII-23an, Pedro Antonio Añibarroren omenez enbor batean egindako inskripzioa agerian jartzean; eskuinetik ezkerrera: Enrike Etxebarria, Areatzako alkatea eta Jean Haritschelhar, euskaltzainburua.

V. Gramatika Jardunaldiak

Uztailaren 24an, Pedro Antonio Añibarroren omenez prestaturiko ekintzen barruan, Gramatika batzordeak bere lana aurkeztu du jardunaldion bidez. Patxi Goenaga batzordekideak batzordearen hainbat arau-proposamen erakutsi ditu eta Jose Antonio Mujika batzordekideak *EGLU-V* liburugaiaren aurkezpena egin du. Aipatzekoa da Rudolf P. G. de Rijk ohorezko euskaltzain eta Leiden-go Unibertsitateko irakaslearen hitzaldia: "Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU)".



Areatzako Udaletxean, 1998-VII-24an, V. Gramatika Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Mujika, Jean Haritschelhar, Enrike Etxebarria, Patxi Altuna.

Erakusketa

Areatzako Udal Bibliotekan Añibarroren liburu eta idazlanei buruzko erakusketa prestatu du Azkue Bibliotekak.

Iraila

Euskaltzaindiaren II. Euskalegunen 75. urteurrena

Doneztebeko "Leku-Eder" zineman, Miguel San Miguel alkateak eman dio hasiera ekitaldi publikoari. Bere hitzaldian, besteak beste, 1923. urtean Udalaren eta Euskaltzaindiaren arteko loturak sortu baziren ere, oraingo honetan sendotu eta indartu egin direla adierazi du. Garai hartan, eskualde honetan euskarak behar zuen bultzadaren abiapuntu izan zirela ospakizun haiek aitortu du eta bukatu du gomita hau luzatuz: "*Ziur gaude, Malerreka inguru honetan euskararen aurre-
rapena nabariagoa izanen dela hemendik aitzina, eta hori zuzenean egiaztatu ahal izateko eskatu
nahi nioke Euskaltzaindiari, ez uzteko pasatzen bertze 75 urte honat itzuli artio, gehienez ere 25
urte. Euskalegun haien mendeurrena eta aldi berean, aurtengo jardunaldien zilar-ezteiak ospatzea
parada on bat izan liteke*".

Ondoren, Andres Iñigo Nafarroako ordezkariak gogoratu ditu bere hitzaldian 1923. urtean Malerrekako eskualdean euskarak bizi zuen egoera, eta orduko Euskalegunen ekintza nabarmenak eta garaiko *El Pensamiento Navarro* egunkariak zioena laburbilduz: euskararen egoera zela-eta Nafarroako Diputazioak euskarari bultzada ematea beharrezkoa zela ikusten zuen; Euskaltzaindiak Euskalegunak Donezteben egiteko luzatu zion eskaria onartzeaz gainera, lagundu

ere egin zuen Nafarroako Diputazioak eta bertan izan ziren diputatu batzuk. Euskaltzaindiak berak hemen egin zuen batzarrean hartutako erabakien artean bi hauek ageri dira: bata, Berako Eskolapioei eskatzea guttienez fraile euskaldun bat edo bi jar zitzatela, ikastetxean eta elizkizunetan euskara erabili ahal izateko, eta bertzea, Doneztebeko Rosa Seminariok sortutako patronatopean funtzionatzen zuen nesken ikastetxean zeuden lau mojak erdaldunak zirenez, guttienez haietako biren ordez bi euskaldun jar zitzatela.

Andres Iñigok honela bukatu du bere hitzaldia: *"75 urte geroago, bai Doneztebek, bai inguruko herriek, irakaskuntzan eta gainerako arloetan ere, eman duten aurrerapausoa seguraski Azkuek eskatutakoa baino haundixeagoa izan da. Dena den, emandako aurrerapauso hori, gaur egungo gizartearen beharrak betetzeko nahikoa ote den izanen da, nik uste, hemen gauden guziori burura datorkigun galdera."*

Maria Jesus Perurena Doneztebeko hezkuntza zinegotziak, eta Pedro Mindegia Malerrekako Euskara batzordeburuak azaldu dute, ondoren, azken 23 urteotan euskarak bizi izan duen egoera.

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak amaitu du ekitaldia, Doneztebeko alkateari eta beste herrietako ordezkariari bere harrera ona eskertuz.

Doneztebeko Udalak plaka bat oparitu dio Euskaltzaindiari II. Euskalegunen eta oraingo ekitaldien oroigarri, eta Euskaltzaindiak bere domina bertako Udalari eman dio.

Ekintza hauekin batera Euskaltzaindiak IV. Ahoskera Jardunaldiak eta III. Jagon Topaketak egin ditu.

Urria

Juan Antonio Mogeli omenaldia

Markinan, urriaren 29an, Lea-Artibai Teknika Ikastetxeko parkean Juan Antonio Mogel idazleari eskeinitako oroitarriaren inaugurazio-ekitaldia ospatu da. Ikastetxeko zuzendaria den Juan Urrutia Txopiteak egin du ospakizunaren aurkezpena eta Lauren Aretxabaleta Goikoetxea, Markina-Xemeingo alkatea ere mintzatu da markinarrei eta euskaldun guztiei Mogelen mezua eta oroitarria eskainiz: *"Gurago dau otsuak baso bizitza, jatekoa nekez billatu biarra, etxe-txakur katiatz lotubaren eregu eta ogi biguna baño"*. Jarraian Jose Antonio Arana Martija euskaltzainak "Juan Antonio Mogel eta Markinako euskara" deritzon hitzaldia eman du.

Batzar irekia egoitzan

Urriaren 30ean batzar irekia izan da Bilboko egoitzako aretoan eta bi ekitaldi-mota hauek burutu dira. Batetik, euskaltzain ohorezko hauen hilberri-txostenak irakurri dira: Jon Etxaiderena,



Egoitzan, 1998-X-30ean, Jaime Kerexetaren hilberri-txostena irakurtzean; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Karmelo Etxenagusia, Jose Antonio Arana Martija.

Juan San Martin euskaltzain osoaren eskutik eta Jaime Kerexetarena, aldiz, Karmelo Etxenagusia euskaltzain ohorezkoak. Bestetik, Jon Etxaide zenaren artxiboa Euskaltzaindiaren esku utzi da: Pilartxo Rekaldek, Jon Etxaideren alargunak, idazlearen gogoa beteaz, Euskaltzaindiari eman dio artxibo hori eta Euskaltzaindiak esker ona adierazi dio bilduen aurrean.

Azaroa

Txomin Agirrearen omenezko ekitaldia Zumaian

Txomin Agirrek idatzi zuen lehen eleberriaren –*Auñemendiko lorea-ren*– mendeurrenean ospakizun-ekitaldia egin dute Zumaiaiko Karmeldarren Ikastetxeak eta Euskaltzaindiak, azaroaren 19an. Bi hitzaldi labur egin dira, aureskuia dantzatu da eta ondoren, plaka bat jarri da ikastetxean. Karmeldarren probintzialak esker onezko hitzak esan dizkie Euskaltzaindiko ordezkariari. Bertan izan dira Euskaltzainburua, Azkue Bibliotekako batzordeburua eta idazkaria, idazkariorde-kudeatzailea eta Literatura Ikerketa azpibatzaileak.

Hau da plakan idatzi dena: "*Domingo Agirre Badiola jaunari Zumaiaiko Karmeldarren Ikastetxeak eta Euskaltzaindiak Auñemendiko lorea-ren mendeurrenean ohorezko oroitzapenez. Zumaia, 1998-11-19*".

Federiko Krutwig-en heriotza

Azaroaren 15ean hil da, Bilbon, Federiko Krutwig euskaltzain osoa. Hilaren 17an, Derioko hilerrian egin zaion hileta-ekitaldi zibilean Euskaltzaindiak ere parte hartu du.



Derioko hilerrian, 1998-XI-17an, Federiko Krutwigen hileta-ekitaldi zibila; ezkerretik eskuinera: Manuel Antonio Federico Etxabe Krutwig, Federiko Krutwig-en loba. Juan Haritschelhar, euskaltzainburua.

I.2. AKADEMIAREN EKINTZA NAGUSIAK ETA BESTELAKO ERABAKIAK

Urtarrila

Ahoskera lantaldearen txostena

Urtarrileko osoen bilkuran, Miren Lourdes Oñederrak Ahoskera lantaldearen lanaren nondik-norakoaz azalpena eman die euskaltzainei "Ahoskera lantaldearen emaitzak (1995-1997)" izeneko txostena irakurriz. Euskaltzain osoez gain, zenbait euskaltzain urgazle izan dira bertan, Pilartxo Etxeberria Ahoskera batzorde-idazkariarekin batera. Hitzaldiaren ondoren elkarriketa izan da, ahoskeran oinarritzko arauak ezartzeak duen premia azpimarratuz.

Otsaila

Ekonomia azpibatzaordearen bilera

Azpibatzaorde hau otsailaren 10ean bildu da Bilboko egoitzan. *Euskaltzaindiaren Alde Fundazioa*-n sar daitezkeen banketxe eta bestelako kide sortzaileak bilatzeaz eta onura fiskalez aritu da, gaiok garatzeaz barneko lantalde bat arduratuko delarik.

Izendapenak

- Iruñeko Udalaren eskariz, bertako Toponimia Batzordeko partaide izateko, Onomastika batzordekide den Patxi Salaberrri nafarra proposatu du batzordeak.
- Euskaltzaindiak Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilurako ordezkariak izendatu ditu Jagon sailaren proposamena onartuz: Miren Azkarate sailburua izango da erakunde horretan Euskaltzaindiaren ordezkaria, eta ordezkoa Joxe Ramon Zubimendi sail-idazkaria.

Jagon sailean idazkari-aldaketa

Jagon sailaren proposamenez, Zuzendaritzak onartuta eta osoen batzarrak berretsi ondoren, Joxe Ramon Zubimendi euskaltzain urgazlea izendatu da Jagon saileko idazkari, Xabier Mendigurenen ordez.

1997. urteko kontuen errendapena

Otsailaren 27an, osoen batzarrean, Diruzaintzak prestatutako "Aurrekontu arrunt zein programakakoen likidazioa: 1997. urtea" izenburudun txostena aurkeztu du Zuzendaritzak.

Martxoa

1997ko urte osoko errendapen-txostenak

Martxoaren 26ko Zuzendaritzaren bileran aurkeztu ondoren, Herri Aginteei bidali zaie 1997ko urte osoan zehar zenbait batzordek burututako lanen errendapen-txostena: Hiztegi Batuko batzordearena, Gramatika batzordearena, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura azpibatzaordeena, Euskara Batukoarena, Ahoskera lantaldearena, Jagon sailarena, Azkue Bibliotekarena eta Argitalpen batzordearena.

Apirila

Antoine d'Abbadieren erretratua Euskaltzaindian

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren aginduz Vicente Ameztoy margolariak Antoine d'Abbadie maisuaren erretratu bat egin du. Kultura Sailaren eskabideari erantzunez, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazioiko sailburuaren 1998ko apirilaren 8ko aginduak erabaki du erretratu hori Euskaltzaindiari uztea. Agindu horretan adierazten da zer baldintzatan eta noiz arte uzten zaion arte-lan hori Euskaltzaindiari. Erretratu hori egoitzan jarri da, apirilaren 24ko ohiko batzar egunean.



Egoitzan, 1998-IV-24an, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak Euskaltzaindiari Antoine d'Abbadieren erretratua emate-ekitaldia; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Mari Karmen Garmendia, Vicente Ameztoy, erretratugilea.

Hezkuntza eta Kultura Ministerioaren literatura-sariak

Espainiako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Ministerioak 1998rako eratu dituen "Premios Nacionales de Literatura" deitzen diren sarietan Euskaltzaindia ordezkatzeko duten epaimahaikide hauek izendatu dira apirilako euskaltzain osoen batzarrean:

- Letras Españolas: Xabier Kintana Urtiaga
- Poesía: Jon Kortazar Uriarte
- Narrativa: Ana Toledo Lezeta
- Ensayo: Patri Urkizu Sarasua
- Literatura Dramática: Andolin Eguzkitza Bilbao
- Literatura Infantil y Juvenil: Francisca Arregi Goenaga
- Traducción: Xabier Mendiguren Bereziartu.

Ordezkapenak

– Fernando Lázaro Carreter *Real Academia Española*-ko zuzendariak apirilaren 27 eta 28an, *Corpus de Referencia del Español Actual (CREA)* eta (*CORDE*) *Corpus Diacrónico del Español* delakoan aurkezpena dela eta, jardunaldi batzuetarako gonbidapena egin dio Euskaltzaindiari. Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du Euskaltzaindia. *Orotariko Euskal*

Hiztegi-ko Iñaki Segurola eta *Hiztegi* Batuko Jose Antonio Aduriz ere izan dira egun horietan Madrilen jardunaldiotan.

Orotariko Euskal Hiztegia-ren informatizatze-plan berria

Orotariko Euskal Hiztegia orain arte WANG informatika sistemarekin landu bada ere zahar-
kitua geratu da, eta egungo sistema estandarretan lan egiteko bideak urratzeko aukera dagoenez,
eguneratze horren zer-nolakoak aztertzeko lantalde bat osatu da honako partaide hauekin: *Euskal*
Orotariko Hiztegi-ko lantaldeko Arantza Egia, Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkarteko
Azucena Gómez de Salazar eta *Centrisa* informatika-enpresako Carmen González. Lantalde honen
helburua uztailerako oinarritzko definizioa prestatzea da.

Maiatza

Euskaltzaindia informatizatze plan berria

Maiatzaren 27an aurkeztu dio *Centrisa* informatika-etxeak Euskaltzaindiari honen egoitza
eta ordezkariak informatizatze gaizate-plana. Zuzendaritzak onikusia eman dio plan horri,
baina azpiegitura eta tresna berriak jartzen hasi aurretik gaizate-planean adierazten diren xeheta-
sunez aditu bati irizpena eskatu zaio.

Piarres Larzabalen Oroitzapenak liburuki berriaren aurkezpena

Pierre Charriton euskaltzainak prestatu berri duen Piarres Larzabalen obraren VII. liburu-
kiaren (*Oroitzapenak*) aurkezpena egin da Baionako Udal Bibliotekan, maiatzaren 29an.

Ekaina

Iberdrola eta Euskaltzaindiaren arteko hitzarmena

Ekainaren 12an, egoitzan, sinatu da *Iberdrola* eta Euskaltzaindiaren arteko elkarlanerako
hitzarmena. *Iberdrola*-ren izenean, Euskal Herrian enpresa honen ordezkaria den Joaquín Ochoa
sinatu du, eta Euskaltzaindiarenean Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Hitzarmen honen bidez
Iberdrola-k Euskaltzaindiari 4.408.000,- pezeta eman dio, informatizatze-planaren proiektua
ordaintzeko.

EUDEL - Euskaltzaindia

Onomastika batzordearen proposamenez eta eraginez, Euskaltzaindiko idazkariorde-
kudeatzailea, Jose Luis Lizundia, EUDELeko kudeatzailea den M^a del Mar Zabalarekin harrema-
netan hasi da. Helburua, EUDELek Onomastikako egitasmo hau babestea da, bi erakundeen arte-
ko hitzarmen baten bidez: udal askorentzat oso balio handikoa den hiri-toponimiaren datu-basea
egingo luke Euskaltzaindiak Euskal Herriko Udalen Elkartearen diru-babesaz.

Ordezkapenak

– Juan San Martin euskaltzainaren olerki-lan guztien bilduma den *Giro gorri* liburua aur-
keztu du Euskal Herriko Unibertsitateak. Liburu honen aurkezpena Euskal Herriko
Unibertsitatearen Arabako Errektoreordetzan egin da eta Patxi Goenaga idazkariak ordezkatu du
Euskaltzaindia. Miramar Jauregian ere beste aurkezpen bat egin da uztailean. Juan Mari Lekuona
Gipuzkoako ordezkariak ordezkatu du Euskaltzaindia.

– Gasteizko Udalak euskararekiko ordenantzaren garapena bermatzeko eta ebaluatzeko lan-
talde bat sortu du, eta Euskaltzaindiari ordezkari bat izendatzeko eskatu dio. Euskaltzaindiak era-
kundearen idazkaria eta Arabako ordezkaria den Patxi Goenaga izendatu du.

Euskararentzako aitopen-eskaria Frantziako Errepublikari

Jean Haritschelhar euskaltzainburuak gutuna idatzi dio Nicole Pery Frantziako ministroari, eskari hauek eginez: Euskara Errepublikako hizkuntza gisa errespetatzea, frantsesaren ondoan; Estatuko herrialde hizkuntzak Frantziaren ondarea direla aitortzea; Herrialde hizkuntza horien erabilera lagatzea eta bermatzea, bakoitzak bere eremuan, frantsesaren parean, ofizialtasuna izanik.

Eskabide hauek berak eginez gutun bana igorri die Euskaltzainburuak Françoise Bayrou Pirinio Atlantikoko Kontseilu Orokorren lehendakariari, eta Jean Grenet Baionako auzapez jaunari.

Polikarpo Iraizozkoaren idazlanen argitaratze-lanak

Ekainaren 25ean aurkeztu da, Nafarroako Gobernuan, Polikarpo Iraizozkoaren *Hitz Neurtuzko Lanak* izeneko liburua, Patxi Ondarrak prestatua eta Nafarroako Gobernuak argitaratua. Honez gain, egile beraren *Hitz Lauzko Lanak I* eta *Hitz Lauzko Lanak II* liburugaia prestatzen ari da Patxi Ondarra euskaltzaina.

Uztaila

Euskal Deituren Izendegia

Uztailaren 13an aurkeztu da egoitzako aretoan *Euskal Deituren Izendegia* liburua. Prentsaurrekoan 73 lagun izan dira, gonbidatuak eta komunikabideak barne. Mahaiburuan hauek egon dira: Henrike Knörr eta Mikel Gorrotxategi Onomastika batzordeko buru eta idazkaria, Sabin Intxaurre Eusko Jaurlaritzako Justizia, Ekonomia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburua. Entzuleen artean Euskal Herrian lanean ari diren Justizia Administrazioako kargudun ugari izan dira, hala nola, Manuel Maria Zorrilla, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko presidentea, epaitegietako idazkariak, notarioak eta Arartekoa.

Euskal Herriko Unibertsitatea - Euskaltzaindia

Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak sinatua duten Hitzarmenaren Jarraipen batzordea uztailaren 22an bildu da Euskaltzaindiaren egoitzan, Bilbon, Hitzarmenaren babesean 1998an zer argitalpen egingo diren erabakitzeko.

Euskararen Aholku Batzordea

Abuztuaren 3an amaitu da Eusko Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzorde osoko eta Toponimia Batzordeko bokalen kargualdia. Kargu horiek berriztatzerakoan, Euskaltzaindiak, lehengo partaide ber-berak izatea proposatu dio Mari Karmen Garmendia Kultura sailburuari: Euskararen Aholku Batzorderako Jean Haritschelhar, eta Toponimia Batzorderako Henrike Knörr.

Euskal Herria Irratia dela eta

Euskaltzaindiak, Nafarroako Gobernuari gutuna egin dio, Euskal Herria Irratiari FM lizentziarik eman ez zaiolako bere desadostasuna adieraziz.

Txomin Agirrerren liburutegiaz

Uztailaren 27an Jose Antonio Arana Martija liburuzaina Zumaiako moja Karmeldarren komentuan izan da. Bertako liburutegian dauden Txomin Agirrerren liburuak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekari emateko prest agertu da Maria Nieves Gorostidi ikastetxeko zuzendaria. Hala, liburuzainak eta Sebastian Garcia Trujillo Azkue Biblioteka batzordekideak Txomin Agirrerren 200 inguru liburu eskuratu dituzte. Gehienak Historia, Teologia eta Erljio liburuak dira; horietako batzuk Euskal Herrian XVIII. mendean argitaratuak dira.

Eusko Legebiltzarra

Uztailaren 28an, Zuzendaritzakoak eta Azkue Bibliotekako zuzendaria Eusko Legebiltzarreko mahaikoekin bildu dira. Eusko Legebiltzarretik hauek izan dira: Joseba Leizaola lehendakaria, Teresa Rodriguez Barahona, Carmelo Barrio eta Julian Orella mahaikideak eta Eduardo Mancisidor Legebiltzarreko legelari nagusia. Esku artean izan den gaia hau da: Euskaltzaindiak eta Eusko Legebiltzarrak hitzarmena sinatzea ondare bibliografiko zaharrak katalogatzeko eta digitalizatzeko. Gai horren jarraipena egiteko Batzorde Teknikoa sortu da. Euskaltzaindiaren izenean Jose Antonio Arana Martija liburuzainak, Jose Luis Lizundia idazkariordekudeatzaileak eta Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendariak parte hartuko dute.

Iraila

Akitaniako Herrialde Kontseilubururari bisita

Irailaren 2an, Zuzendaritzakoek, Beñat Oihartzabal Iker sailburuak eta Jose Luis Lizundia idazkariordekudeatzaileak bisita egin diote, Bordelen, Akitaniako Kontseiluburu izendatu berriari, hots, Patrick Volpilhac jaunari. Bisitaren xedea, Ipar Euskal Herria kokatzen den Herrialde Kontseiluak Euskaltzaindiarekin diru-laguntzaz hitzarmena egitea eskatzea izan da.

Jarraipen Batzordearen bilera

Irailaren 8an bildu da Jarraipen batzordea Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Txosten Teknikoa aztertu da (hots, Euskaltzaindiaren 1997ko egitasmoen eta diru-kontuen jarraipena) eta Euskaltzaindiaren informatika-planaren aurkezpena egin da:

- Administrazioen izenean honako jaun-andre hauek bildu dira: Josune Ariztondo eta Xabier Aizpurua, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailekoak; Fernando Pérez de Viñaspre Nafarroako Gobernuakoa; Juan Carlos Mujika Arabako Diputaziokoa eta Xabier Huizi Gipuzkoako Diputaziokoa.
- Euskaltzaindiaren izenean: Jean Haritschelhar, Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia eta Juan Jose Zearreta.

Euskaltzaindiaren Arauak

Arauen 1. karpeta edukia jasotzen duen CD-ROMa argitaratu du Euskaltzaindiak. Irailaren 15ean egin da aurkezpena.



Egoitzan, 1998-IX-15ean, 1. karpeta Arauak biltzen dituen CD-ROMa aurkeztea; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Arana Martija, Patxi Goenaga, Ricardo Badiola, Joseba de Francisco "Tratex" fotokonposizio etxeko teknikaria.

Herri Batasuneko ordezkariekin

Irailaren 24an Zuzendaritzak Donostiako ordazkaritzan egindako bileran, Herri Batasuneko Mahai Nazionalak bisita egin dio Euskaltzaindiari. Mahaikide hauek izan dira: Arnaldo Otegi, bozeramailea; Angel Mari Elkano, euskararen arduraduna eta Inazio Agirre, hautagaia. Euskaltzaindiari euskararen erakunde gorena denetik, aitortzen zaion nortasunaz eta garrantziaz hitz egin da. Euskaltzaindiari euskararen normalizazioan dagokion zereginaz eta euskararen egoeraz.



Donostiako ordazkaritzan, 1998-IX-24an, Herri Batasuna alderdiak egindako bisita; ezkerretik eskuinera: Henrike Knörr, Jean Haritschelhar, Arnaldo Otegi, Jose Antonio Arana Martija, Jose Luis Lizundia, Patxi Goenaga, Angel M. Elkano, Inaxio Agirre.

BBV Fundazioa - Euskaltzaindia

BBV Fundazioak *Hiztegi Batua* babesteko Euskaltzaindiarekin duen hitzarmenean esaten dena betez, diruzainak irailean BBV Fundazioari, errendapen moduan, Hiztegi Batuko lantaldeak 1997. urtean zehar eta 1998ko lehen seihilabetean egindako lanen berri emateaz gain osoko bilkurretan onartutako *A - makina-tresna* arteko hitz-zerrendak aurkeztu dizkio.

Erakundearen ordezkatzekak

- Euskal Herriko Unibertsitateko Errektorearen gonbiteari erantzunez, Henrike Knörr buruordea eta Patxi Goenaga idazkaria izan dira irailaren 24an, Gasteizko Industria eta Topografia Ingeniaritza Teknikorako Unibertsitate Eskolan, 1998-99 ikasturtearen hasiera-ekitaldian.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak, EIZIEk eta Ibaizabal argitaletxeak egindako gonbiteari erantzunez, irailaren 10ean, *Literatura Unibertsala* deritzon bildumako lau libururen aurkezpen-ekitaldian Patxi Goenaga idazkaria izan da Gasteizen.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Lehendakariak, hil honen 29an, Ajuriaenea Jauregian euskal gizartearen ordezkariari eskainitako harrera-ekitaldian Henrike Knörr buruordeak ordezkatu du Erakundea.
- Irailaren 30ean, Donostiako campusean izan den Deustuko Unibertsitatearen 1998-99 ikasturtearen hasiera-ekitaldira Juan Mari Lekuona Gipuzkoako ordezkaria joan da.

Urria

EUDEL - Euskaltzaindia

Udal askotatik heltzen zaizkio Euskaltzaindiari irizpen-eskabideak. Euskaltzaindia denbora luzez aritu da EUDELekin (Euskadiko Udalen Elkartearekin) harremanetan Euskaltzaindiak eman lezakeen zerbitzu hori era egokiagoan nola eman aztertuz. Adostasunera iritsi dira bi erakundeak, eta horren ondorioz, Euskaltzaindiak hiri-toponimiarako datu-basea gauzatzeari ekingo dio, eta EUDELeke diru-babesa emango du.

BBK-Euskaltzaindia literatura sariketetarako epaimahaiak

Literatura batzordearen eskumenez, Euskaltzaindiak 1998ko sarietarako epaimahaikide hauek izendatu ditu:

- Txomin Agirre eleberria: Gorka Aulestia, Txomin Peillen, Ana Toledo.
- Toribio Alzaga antzerkia: Eugenio Arozena, Daniel Landart, Patri Urkizu.
- Felipe Arrese Beitia olerkia: Jon Kortazar, Mikel Lasa, Juan Mari Lekuona.
- Mikel Zarate saioa: Andolin Eguzkitza, Adolfo Arejita, Luis Mari Mujika.

1999ko aurrekontuak eta lan-programak

Urriari bidali zaizkie Herri Aginteei Euskaltzaindiaren 1999ko aurrekontuak eta batzordeen eta egitasmoen lan-programak.

Euskara Batuaren 30. urteurrena

1968ko Biltzarraren 30. urteurrena dela eta, Euskal Telebistak Euskara Batuaren ibilerari buruzko erreportaiak prestatu du. Euskaltzaindiari dagokionez, elkarrizketa bana egin diete Jean Haritschelharri, Ibon Sarasolari, eta, orduko Arantzazuko biltzar-aretoan, Luis Villasante, Juan San Martin, Jose Luis Lizundia eta Reyes Corcóstegui Oñatiko alkate-ohiari.

Azkue Biblioteka

- Urriaren 8an, Pruden Gartzia Azkue Bibliotekako zuzendaria Deustuko Unibertsitateko arduradunekin bildu da. Bileraren helburua, elkarren arteko harremana bultzatzeaz gain, euskara eta bibliotekari buruz hitz egitea izan da, Azkue Bibliotekaren Katalogatze egitasmoa aurkeztuz eta Deustuko Unibertsitateak gai horri buruz duen ikuspegia ezagutuz.
- Urriaren 22an, halaber, Euskal Herriko Unibertsitateko biblioteka arduradunekin.

Azaroa

Zuzendaritza berriztatzea

Bilkura berezia egin da, azaroaren 27ko osoen batzarrean, karguak izendatzeko. Mahaiburuan, bertan zirenen arteko euskaltzain dekanoa -Xabier Diharce- eta izendatu berriena -Andres Urrutia- jarri dira. Zuzendaritzako kargu berberak aukeratu dira:

- Euskaltzainburua: Jean Haritschelhar Duhalde
- Buruordea: Henrike Knörr Borràs
- Idazkaria: Patxi Goenaga Mendizabal
- Diruzaina: Jose Antonio Arana Martija.

Jagon sailaren egitasmoa

Jagon sailak, urriaren 23an, egun osoko bilera -Barne Jardunaldia- egin du bere norabideaz. Bilera horretan "Jagon sailaren egitasmoa" izeneko adierazpena prestatu du Jagon sailak eta Zuzendaritzari aurkeztu dio. Honek azaroan ontzat eman du. Egitasmo horretan, Jagon sailari egin-

kizun zabalagoak jarri nahia adierazten da, euskararen kalitatearen alorrean euskalgintzan ari direnei gaur eguneko komunikazio-baliabideekin zerbitzu hobea eskaintzeko.

Gasteizko Udalari errendapen-txostena aurkeztu

Euskaltzaindiak Gasteizko Udalarekin sinatua duen hitzarmenean esandakoa betez, Euskaltzaindiak iazko ekainetik aurtengora burututako lanen berri ematen duen txostena Gasteizko Udalari aurkeztu dio. Ondorioz, 1998rako hitzartutako diru-laguntza jaso ahal izan du Euskaltzaindiak.

Nazioarteko Euskararen Eguna

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailordetza harremanetan jarri da Euskaltzaindiarekin, beste erakunde batzuekin adostuta, Nazioarteko Euskararen Eguna izendatzeko eta urtero ospatzeko.

Ekonomia azpibatzerdearen bilera

Azaroaren 24an Ekonomia azpibatzerdea bildu da ordezkarietan. Gai nagusiak, jabego intelektuala eta *Euskaltzaindiaren Alde* Fundazioa izan dira. Lehenari dagokionez, Andres Urrutiak Euskaltzaindiaren lanaren jabego eta erabilerari buruzko txostena aurkeztu du. Bigarrena dela eta, Fundazioa martxan jartzeko kudeatzaile izan daitezkeenez hitz egin da.

Abendua

Durangoko XXXIII. Liburu eta Disko Azoka

Abenduaren 3tik 8ra -biak barne- egin den Azokan Euskaltzaindiak bi estand izan ditu aurreko urteetan bezala. Antolatzen diren kultur ekitaldien artean, abenduaren 7an, Euskaltzaindiak argitalpen hauen aurkezpena egin du: *Euskal Deituren Izendegia, Arauak: 1. Karpeta (CD-ROM)* eta *Antoine d'Abbadie (1897-1997)*.

Zuzendaritzak batzordeburuekin bilera

Gasteizko ordezkarietan, abenduaren 17an, Zuzendaritza sailburu eta batzordeburu batzuekin bildu da, kargu horiek berriztatzeko. Zuzendaritzak, biharamuneko hileko osoen bilkuran kargu hauek izendatzea proposatu du, eta osoen bilkurak onartu, ondoren:

- Iker sailburua: Beñat Oihartzabal
- Hiztegegintza batzordeburua: Ibon Sarasola
- Gramatika batzordeburua: Patxi Altuna
- Onomastika batzordeburua: Henrike Knörr
- Literatura batzordeburua: Juan Mari Lekuona
- Euskara Batuko batzordeburua: Pello Salaburu
- Argitalpenen batzordeburua: Jean Haritschelhar
- Azkue Biblioteka batzordeburua: Jose Antonio Arana Martija
- Lege-ekonomia batzordeburua: Jean Haritschelhar.

BBK - Euskaltzaindiaren sariak

Abenduaren 11n, egoitzan, jakinarazi dira 1998ko sari-irabazleen izenak. Jean Haritschelhar, Juan Mari Lekuona eta Jose Ramon Bilbao –Bilbao Bizkaia Kutzako ordezkaria–, Andolin Eguzkitza eta Ricardo Badiola izan dira mahaiburuan. Hona hemen sarituen izenak:

- *Mikel Zarate* saiakeran Jon Sudupe Martija, *Euskaldunak, liberalak eta komunitatezaleak* lanagatik.
- *Felipe Arrese Beitia* olertian Jose Luis Padron Plazaola, *Ibaia euri-erasotan bezala* lanagatik.



Egoitzan, 1998-XII-11n, 1998ko literatura-sariak (Mikel Zarate saiakera, Felipe Arrese Beitia olerkia eta Toribio Altzaga antzerkia) ematea; ezkerretik eskuinera: Jose Ramon Bilbao, Jean Haritschelhar, Andolin Eguzkitza, Ricardo Badiola.

– *Toribio Altzaga* antzerkian Juan Karlos del Olmo Serna, *Jon gurea*, *Parisen hatzana* lanagatik.

Txomin Agirre eleberri-saririk aurrean ez ematea erabaki du epaimahaiak.

Jarraipen Batzordearen bilera

Abenduaren 17an egin da Jarraipen Batzordearen bilera Eusko Jaurlaritzaren egoitzan. Hauek izan dira eskuarteko gaiak: Batzorde Teknikoaren txostena aztertu (1998ko bigarren eta hirugarren hiru hilabeteetan burututako lanak eta 1999rako egitasmoak eta aurrekontuak); Onomastika batzordearen lana; Euskaltzaindiaren informatizazioa; Euskaltzaindia eta UZEI: amankomuneko datutegiaren erabilera, eta 1999ko protokoloa.

Hauek izan dira bileran:

– *Administrazioetatik*: Josune Ariztondo eta Xabier Aizpurua Eusko Jaurlaritzatik, Fernando Perez de Viñaspre Nafarroako Gobernutik, Manu Legarreta Bizkaiko Diputazioetatik eta Juan Karlos Mujika Arabako Diputazioetatik.

– *Euskaltzainditik*: Jean Haritschelhar, Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Luis Lizundia eta Juan Jose Zearreta.

Piarres Xarritton eta Juan Mari Lekuona sarituak

– "1999ko Manuel Lekuona Saria". Abenduaren 18an egindako bileran, Eusko Ikaskuntzako Batzar Iraunkorrek 1999ko Lekuona Saria Piarres Xarrittoni ematea erabaki du. Sari hau 1983an sortu zen, eta harrezkero, urtero-urtero, euskararen alde lan bikaina egin duten pertsonak goraipatu dira.

– "Rosalía de Castro Saria". Pen Club Galicia idazle-taldeak, 1998ko euskal saileko Rosalía de Castro Saria Juan Maria Lekuonari eman dio. Galegoa alde batera utzita, Penintsulako gainerako hizkuntzetan gailendu direnei ematen zaie sari hau. Lehenengo edizioan Bernardo Atxaga izan zen saritua.

Tunisiako Atlaseko ordezkariaren bisita

Azaroaren 30ean eta abenduaren 1ean Euskal Herrian izan da Salah Mejri, Tunisiako Hizkuntza Atlaseko arduraduna. Parisen CNRS-ek aholkatuak, Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaz zertan den ikustera etorria da. Bi egun horietan egoitzan, Baionako ordezkariaren eta Donostiako Atlasaren bulegoan izan da galdesortak eta mapagintza hobeki aztertzeko, eta arazo linguistikoak eta informatikoak atlas informatizatuetan nola lot daitezkeen ikusteko.

Erakundearen ordezkari

Ricardo Blázquez Bilboko gotzainak eta Karmelo Etxenagusia gotzain laguntzaileak Euskaltzaindia gonbidatu dute *Bilbo Herri Irratia / Bizkaia Irratia*-ren 25. urteurreneko ospakizunera. Abenduaren 22an Begoñan egin den ekitaldi horretan Patxi Goenaga idazkariak ordezkatu du Euskaltzaindia. Bertan Andres Urrutia euskaltzaina eta Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea ere izan dira.

Euskaltzaindiari omenaldia

Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak, abenduaren 18an, Gasteizko *Europa* Jauregian, omenaldia egin dio Euskaltzaindiari, 1968ko Arantzazuko Biltzarraz geroztik euskara batua-
ren alorrean, bereziki, eta hizkuntzaren normalizazioan orohar, egin duen lanagatik. Orobat, orain dela 20 urte Euskaltzaindiak antolatu zuen BAI EUSKARARI kanpainako laguntzaileei omenaldi berezia egin die Kontseiluak. Kontseiluak, bertan izan diren Euskaltzaindikoei *Ez gaituzte ezagutzen* izenburua duen Joxantxon Artzeren olerkia eta *Euskaltzaindiari omenaldia* izenburudun karpeta eta bideoa eman dizkie.

I.3. HIZKUNTZA ERABAKIAK

Aurreko urteetako jardunari eutsiz, Euskaltzaindiak hileroko azken ostiraletan egin dituen osoko bilkuretan hizkuntzarekikoak izan dira gai nagusiak. Hiztegi Batua, Gramatika, Onomastika eta Ahoskera izan dira hizkuntza-erabakiak hartu diren arloak. Kasuan kasuko batzordeak erabaki-proposamena prestatu duenean Euskara Batuko batzordearen eskuetan utzi du, eta horrek euskaltzain osoen hileroko bilkuran aurkeztu. Gai jakin bat aurkeztu denetik hogeit hamar egun dute euskaltzainek proposamenari idatzizko oharra egiteko; horrela, hurrengo hileko osoen bilkuran, ohar horiek aztertzen dira eta erabakitzen.

Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarraz geroztik, 1994ko urritik hasita, Euskaltzaindiak bere hizkuntza-erabakiak *Euskera*-n argitaratzeaz gain aparteko argitalpen batean kaleratzen ditu: *Euskaltzaindiaren Arauak* izeneko bilduman. Argitalpen hori jasotzen duten harpidedunei urtean hiru aldiz bidaltzen zaizkie Euskaltzaindiak hilez hil hartzen dituen hizkuntza-erabakiak.

1998an zehar Euskaltzaindia hilez hil hizkuntza-erabakiak landuz joan da: Hiztegi Batuari dagokionez, *josi* eta *orburu* bitarteko hitz zerrenda onartu da. Eta zenbait erabaki puntualak osatu da aurreko zenbait zerrenda: *Sao Tome eta Principe*, *Haga*, *Albacete*, etab. "Zuberoako Herri izen-degia" ere onartu da.

II. Sailak eta batzordeak

II.1. Iker Saileko batzordeak

II.1.1. Hiztegegintza

II.1.2. Gramatika batzordea

II.1.3. Dialektologia-Atlasgintza batzordea (Euskal Herriko
Hizkuntz Atlasa)

II.1.4. Onomastika batzordea

II.1.5. Literatura batzordea

II.1.5.1. Herri Literatura azpibatzordea

II.1.5.2. Literatura Ikerketa azpibatzordea

II.1.6. Batzorde suntsikorrak

II.1.6.1. Euskara Batuko batzordea

II.1.6.2. Ahoskera azpibatzordeko lantaldea

II.2. Jagon Saila



BATZORDEEN LANA

Euskaltzaindiaren lanaren emaitza batzorde-lanari zor zaio hein handi batean. Euskaltzaindiak gaur egun burutzen duen lan akademikoa ezin ulertuzkoa izango litzateke hile-ro-hilero biltzen diren batzordekideen lanik ez balego. Elkar-lan horrek biltzen du adituen ekarria eta hor prestatzen eta oinarritzen dira ondoren Euskaltzaindiak hartzen dituen hizkuntz erabakiak.

Euskaltzaindiak bi sail nagusi ditu: Iker Saila eta Jagon Saila. Bi urterik behin berriztatzen dira sailburuak, batzordeak eta batzordekideak. Batzordekideez gain, aholkulariak izendatzen dira edota lantaldeak sortzen, kasuan kasuko batzordearen premien eta Erakundearen baliabideen arabera.

Batzorde horietan, euskaltzain oso eta urgazleez gain, esparru desberdinetako adituak biltzen dira: unibertsitateetako eta institutuetoako irakasleak, hezkuntza munduko irakasleen euskalduntze-alfabetatze lanetan diharduten prestatzaileak, idazleak, komunikabideetako teknikariak, itzultzaileak, hiztegigileak eta administrazioko teknikariak. Hori horrela izateak Euskaltzaindiaren lana aberasteaz aparte, oso oinarri sendoak eskaintzen dizkio erabakiak hartzeko orduan. Baina, horrek ere badakar dakar prozedura zailtea batzordekideek beren ogibidea baitute, eta tarteka egiten dute lan Euskaltzaindiarentzat.

Batzordeen lan-metodologia


Batzordeen lana talde-lana da, eta nahiz eta hasieran batzordekide jakin baten oinarritzko itzkeretatik abiatu, batzordeak bideratzen du gaia. Esan liteke, oro har, batzordeen lan-moduan ondoren adierazten diren urratsak ematen direla:

- a) Batzordeak lehenik txostenak egiteko agindua ematen die batzordekideei.
- b) Batzordekideek beren txostenak prestatzen dituzte.
- c) Batzordekideek beren txostenak irakurtzen dituzte batzordean.
- d) Batzordeak eztabaidatu egiten ditu, eta txostengileek aldatu egiten dituzte txostenak, behar izanez gero, batzordeak erabakitakoaren arabera. Prozesu honek txostenak bi edo hiru aldiz berridaztea ekar dezake berekin, batzordeak testua osorik ontzat eman baino lehen.
- e) Zenbait kasutan, bekadun edo lan-hitzartu baten laguntza izan dezake batzordeak, esku arteko lanak edo txostenak egin ahal izateko informazioa eskuratzen duena, Hiztegi Batua, Onomastika edo Gramatikaren kasuan bezala.

Batzordeen bilerak


Hona hemen, grafikoen bidez azalduta, batzorde desberdinekek 1998an egindako bileren berri.

Batzordeen bilerak



1. Hiztegi Batua
2. Gramatika
3. Atlasa
4. Onomastika
5. Herri Literatura
6. Literatura Ikerketa
7. Euskara Batua
8. Ahoskera
9. Jagon Saila
10. Argitalpenak
11. Azkue Biblioteka
12. Lege-ekonomia

Batzordeen bilerak hilez hil



II.1. IKER SAILEKO BATZORDEAK

II.1.1. HIZTEGIGINTZA

II.1.1.1. Orotariko Euskal Hiztegia

Sarrera

Hiztegigintza Euskaltzaindiarentzat oinarri-oinarrizko eginkizuna da. Une honetan bi proiektu garrantzizko ditu eskuartean: *Orotariko Euskal Hiztegia* eta *Hiztegi Batua*.

Orotariko Euskal Hiztegiak garai, toki eta mota guztietako euskal hitz-ondarea bildu nahi du. Obra deskriptiboa da, ez arauemailea. Euskaldunak, mende eta euskalkietan zehar zein hitz eta esapidez baliatu diren eta nola baliatu diren ahalik eta osokien eta zehatzen azaltzea da hiztegi honen xedea. Hiztegi hau aurrera eramateko hitzarmena 1984an sinatu zen. Lehen liburukiak 1987an ikusi zuen argia. 1998an, berriz, agertu da hamaikagarren alea. Guztira 16 liburuki izango ditu.

1998ko lanen berri

XI. liburukia

XI. liburukiaren idazketa

Martxoan amaitu da XI. liburukiaren idazketa.

Zuzenketak

A) Urtarriletik irail bitartean, liburuki honetan jaso diren KOR-MAJ arteko hitzen testua zuzendu da. Zuzenketa-mota honek dagokion liburukiaren testua lantaldeak bukatu bitarteko lana hartzen du, ez geroago aipatuko diren frogen zuzenketa.

Zuzenketa-lanak epeka egin dira (ikus eranskina):

- a) Adibideen zuzenketa (hiztegiaren corpus nagusia osatzen duten testu eta adibideak) burutu da.
 - b) Sarrera-buruak (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegitileen aipuak, etab.) landu dira.
 - c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, KOR-MAJ zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren bata bestearenak aztertuz.
 - d) Azkenik zuzenketa filologikoa eta lexikografikoa burutu dute bi zuzentzaileek.
- B) Frogen zuzenketa: irailaren hasieratik urriaren amaiera bitartean, liburukiaren (KOR-MAJ arteko testua) inprimategiko bi froga zuzendu dira. Honela, liburukia prest utzi da argitaratzeko.

Argitalpena

1998ko abenduan inprimatu da *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren XI. liburukia (KOR-MAJ):

- 874 orrialdeko liburukia da, eta
- 9.463 hitz-sarrera desberdin ditu.

XII. liburukia


XII. liburukiaren idazketa

Martxotik abendura, MAK-OJ letren arteko testua idatzi da, ondoko eranskinean ikus daitekeenez.

XII. liburukiari dagozkion zuzenketak

Atal honetan, normala den bezala, gainerakoak baino gutxiago landu bada ere, zuzenketa-lan hauek burutu dira, azaroaren amaieratik abendura bitartean:

- a) Adibideen zuzenketari dagokionez (hiztegiaren gorputz nagusia osatzen duten testu eta adibideak) MAK-MAS zatia burutu da.
- b) Sarrera-buruei dagokienez (euskalki-markak, hitza jasotzen duten hiztegiileen aipuak, etab.) MAK-MAT zatia landu da.
- c) Koordinazio eta zuzenketaren atalean, MAK-MAR zatia landu dute bi zuzentzaileek, lehenbizi nork bere zuzenketak eginez eta ondoren batak bestearenak aztertuz.



1. ERANSKINA
1998ko ERREDAKZIO-LANAK

Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua
lu-/lur mas-/maz-	mas-/maz- mo-	mo-	mo- main-/maj-	main-/maj-	mo-	muo-/muz-	muo-/muz-	muo-/muz- nol-/nop-	nol-/nop-	nol-/nop- ñ o-/of-	non- ñ o-/of-
lor-/loz- me-	me-	me-	me-	me-	me-	me- na-	na-	na-	na-	na-	na-
lus-/luz-	lus-/luz- mi-	mi-	mi-	mi-	mi-	mi-	no-/nok-	no-/nok-	no-/nok- nor-/ny	nor-/ny-	nor- ny-
Il-/lop mak-/mar	mak-/mar-	mak-/mar-	mak-/mar-	mak-mar-	mak-/mar-	ne-/ni-	ne-/ni-	ne-/ni-	ne-/ni-	ne-/ni-	ne-/ni-
ma-/main-	ma-/main-	ma-/main-	ma-/main-	ma-/main- mu-/mun-	mu-/mun-	mu-/mun-	mu-/mun-	mu-/mun-	mu-/mun-	mu-/mun- og-/oj-	og-/oj-

2. ERANSKINA

1998ko ZUZENKETA-LANAK

	Koordinazioa eta zuzenketa		Testu zuzenketa	Sarrera-buruen zuzenketa	Zuzenketak fil. eta lexik. ma.
Urtarrila	lab-lar-		lan-/lar-	la-/le-	kup-/kuz-
Otsaila	lar-/lat-		lar-/laz-	le-	la-/lar
Martxoa	lat-/laz-	kor-/kuz-	laz-/lek	le-/li-	kor-/kuz-
Apirila	laz-le-	la-	laz-/lek-	le-/li-	lar-/lez-
Maiatza	li-/lo-		lek-/lis-	lo-	le-
Ekaina	lu-/maj-	maj-	lis-/lok	lo-/ma-	la-/maj- li-/maj-
Uztaila			lok-/lum-	ma-/maj-	
Abuztua	kor-	kor-	lum-/maj-	ma-	kor-/maj-
Iraila	maj-	maj-	lum-/maj-		kor-/maj-
Urria	mak-		mak-/man-	mak-	
Azaroa			man-/mar-		
Abendua	mar-		mar-/mas-	mat-	

II.1.1.2. HIZTEGI BATUKO LANTALDEA

Sarrera

Orotariko Euskal Hiztegia-ren helburua euskararen hitz-ondarea jasotzea bada, *Hiztegi Batua*-rena hiztegi arauemailea gauzatzea da.

Euskaltzaindiak zenbait hiztegi onartuak zituen, gai desberdinen inguruan: *Batasunerako hiztegia*, *Matematika hiztegia*, *Merkatal Izendegia*, etab. Ondoren, euskararen beharrei erantzuteko nahitaezkoa zela ikusi zuen Akademiak euskara batuaren oinarrizko hiztegia osatzea, eta horretarako sortu zuen 1992an Hiztegi Batuko batzordea. Oinarrizko hiztegi honek eguneroko bizitzako hitz erabilienak euskara batuan finkatuko ditu.

Lanaren metodologia eta irizpideak zehaztu zituen batzordeak 1992an. 1993an hasi zen lehen hitz-zerrenda aztertzen eta ontzat ematen.

Hiztegi Batua bi zatitan lantzen da. Horietan lehenak forma erabilienak edota hedatuena jasotzen ditu, eta bigarrenak erabilera urriagokoak. Lehenengo pasaldian, 1997an amaitua, 20.000 hitz edo forma aztertu ditu Hiztegi Batuko lantaldeak. 1997an lantzen hasi zen bigarren zatiak beste horrenbeste forma izango ditu aztergai. Euskaltzaindiak hitz edo forma horiek onartu, osatu eta argitaratzean, guztira 35.000 hitz inguru izan ditzake Hiztegi Batuak. Euskaltzaindia hasia da lehen zatiko formak argitaratzen, hitz-zerrendak osoen batzarretan aztertu, onartu eta arautuz.

1998an burututako lanak

Batzordeak hitzak aztertzea

Lantaldeak 1998an zehar egindako 22 bileretan 6.200 forma aztertu ditu, *aurrerarazte-erasan* artekoak.

Hitz edo forma horiek txostenen argitan (hots: Hiztegi Batuko bekadunek Hiztegi Batuko lantaldearentzat prestatutako 477 txostenen, Euskara Batuko batzordearentzat egindako 32 txostenen eta UZEIko lantaldeak egindakoen argitan) eta lantaldearen irizpideen haritik landutako proposamenak izan dira. Aztergai honetako formei dagokienez, batz bestea, erdiak-edo dira lantaldeak ontzat ematen dituenak, eta beste erdia baztertzen duena edo gerorako uzten duena.

Aztertutako hitz edo forma horien iturri nagusiak (OEH) *Orotariko Euskal Hiztegia* eta (EEBS) *Eguno Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa*-ren corpusak dira. Beste hauek ere kontuan hartzen dira: euskaltzainek edota iritzi-emaileek aurreko A-Z arteko zerrendari gehitzeko eskatuak, prestasunaren lekuko izan litezkeen zerrenda eta hiztegitxoetakoak eta azken aldiotako glosario kontsentsuatu edo talde-lanean proposatuak.

Irizpideen txostena eguneratu

Lantaldearen irizpideak sistematizatzen dituen dokumentua osatuz eta eguneratuz doa, auzigai berriak agertu ahala, dagokien konponbidea zehaztu ahal izateko.

Irizpide horien eta kasuan kasuko informazioaren argitan (cf. gorago aipaturiko txostenak) aztertu dira forma edo hitzak eta hauetako bakoitzaz lantaldeak bere iritzia eskaini du, zabalago batzuetan, soilago besteetan:

- onartzeko forma den
- bigarren mailan onartzekoa den
- okerra den
- zein eremutan erabiltzekoa den
- nola ageri den syntaxian
- zein adiera duen
- etab.

Datu horiek guztiak jaso eta egituratzen dituen dokumentua da batzordearen lanaren lekuko, eta horixe da euskaltzainei eta gainerako iritzi-emaleei banatu behar zaiena.

II.1.2. GRAMATIKA BATZORDEA

Sarrera

Batzorde hau aspaldidanik ari da euskal gramatikari buruzko gaiak aztertzen, eta 1984tik 1994ra bitartean zazpi liburu kaleratu ditu, *Euskal Gramatika. Lehen urratsak* izenburuarekin.

Une honetan, batzordea *menderakuntza* aztertzen ari da, ondoren, gai horretaz liburu bi argitaratzeko. Liburu horiek ere lehenago aipaturiko liburu-sortan kokatuko dira. *Menderakuntzaren* barnean, *-en* eta *-ela* menderagailuen azterketa egiten dihardu batzordeak, txostenak prestatuz eta eztabaidatuz, behar diren idatzaldiak eginez.

1998an egindako lana

Gramatika batzordeak 1998an hamalau bilera egin ditu, gehienak goiz eta arratsalde, guztira sei bat ordukoak.

Menderakuntzari buruzko lehen liburukirako txostenen azken idatzaldia

Menderakuntzazko lehen liburukia osatuko duten txosten gehienen behin betiko idatzaldia egin du batzordeak.

Menderakuntzari buruzko lehen liburukia osatuko duten txosten guztien idazketa ia behin betikoa burutu da:

- Perpaus erlatiboak (azken idatzaldia)
- Perpaus osagarriak (4. idatzaldia)
- Konparazio perpausak (azken aurreko idatzaldia)
- Ondorio perpausak (azken idatzaldia).

Araugintza

Gramatikazko aragai berriak aztertu, eztabaidatu eta prestatu ditu batzordeak. Euskara Baturako arau-proposamen hauen lehen idatzaldia egin du batzordeak:

- "Zehar galderetako *-enetz* / *-enentz*"
- "Ehunekoak adierazteko modua"
- "Aditz modalak"
- "Mugagabearen erabilera zenbait neurri sintagmatan"
- "Komunztadura aposizioetan"
- "Izen sintagma juntatuak"
- "Ere lokailuaren erabilera"
- "*Baizik* / *besterik* / *baino* eta aditz komunztadura".

V. Gramatika Jardunaldiak

Pedro Antonio Añibarroren 250. urteurrenean, Areatzako Udaletxean, 1998ko uztailaren 23an eta 24an egin dira V. Gramatika Jardunaldiak. Besteak beste hitzaldi eta txosten hauek irakurri dira:

- Blanca Urgell, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak: "Pedro Antonio Añibarro euskalari: hizteigile, gramatikalari eta beste".
- Rudolf P. G. de Rijk, ohorezko euskaltzain eta Leiden-go (Holanda) Unibertsitateko irakasleak: "Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU)".
- Patxi Goenaga, Gramatika batzordekideak: "Gramatika batzordearen arau-proposamenak".
- Jose Antonio Mujika, Gramatika batzordekideak: "EGLU-V liburugaiaren aurkezpena". (Aditz jokatzuko perpaus osagarriak, erlatiboak, konparaziozkoak eta kontsekutiboak).



Areatzako Udaletxean, 1998-VII-24an, V. Gramatika Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Jose Antonio Mujika, Patxi Altuna.

Hizkuntz kontsultak

Tarteka, batzordera iritsi diren kontsultei zegokien erantzuna eman zaie.

II.1.3. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

Batzordeak inkesta-sarea, galdesorta eta inkesta-metodologia landu eta finkatu ondoren 1986an probak egin eta 1987an hasi ziren inkestak egiten horretarako inkestagileak hitzartuz.

Euskal Herriko 145 herritan egin ziren inkestak: Bizkaiko 36tan, Gipuzkoako 36tan, Arabako 1-ean, Nafarroako 27tan, Lapurdiko 15etan, Nafarroa Behereko 18tan eta Zuberoako 12tan.

Inkesta-leku bakoitzean 2.857 itaun bildu dira. Horietatik 2.162 lexikoaz, 596 morfologiaz (336 izen morfologiaz eta 260 aditz morfologiaz), 62 sintaxiaz eta 37 fonetika sintaktikoaz. Goian esandako 145 herrietan egin diren inkestez 2.400 zinta grabatu ziren, guztira, burutu ondoren 4.000 ordu baino gehiagoko grabazioa osatuz.

Egitasmoaren helburua inkestaren ondorioei dagozkien mapak eratzea, eta oro har ondorio horiek publikoaren eskuetan jartzea da. Mapa-liburuak era automatizatuan argitaratu ahal izateko programa informatikoa amaitu du 1998an Aurten Bai Fundazioak, elkarte horrek Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmenaren arabera.

1998an egindako lanak


EHHA lantaldeak 1998an izan dituen lan eremuak hauek izan dira:

- datuak base automatizatuan sartzen jarraitu;
- datu-sartzea atondu;
- mapak argitaratzeko prestatu.

Hirugarren koadernoko inkesten datuak sartzen jarraitu

Hirugarren koadernoko datu-sarreran 28 inkesta informatizatu dira.

1. irud.: datuen informatizazioa 1998an



Hona hemen informatizatu diren 28 herri horiek zein diren, lurraldeka:

- Bizkaia (10): Arrieta, Bakio, Bermeo, Berriz, Euba, Fika, Larrabetzu, Orozko, Zeberio, Zeanuri.

- Nafarroa (6): Donamaria, Ezkurra, Etxalar, Goizueta, Leitza, Luzaide.
- Lapurdi (11): Ahetze, Arrangoitze, Azkaine, Beskoitze, Donibane-Lohizune, Hazparne, Hendaia, Itxasu, Makea, Senpere, Uztaritze.
- Nafarroa Beherea (1): Aldude.

1998. urtearen amaieran hirugarren ataleko 141 inkesta daude informatizatuta (%97,24) eta 4 falta dira amaitzeko.

Horrekin batera, lehen sartutako hamazazpi herriotako inkesta hauen zuzenketak egin dira ordenagailuan: Ahetze, Aramaio, Arrangoitze, Arrazola, Arrieta, Busturia, Elantxobe, Elorrio, Fika, Ibarruri, Kortezubi, Larrabetzu, Lekeitio, Luzaide, Makea, Otxandio, Senpere.


2. irud.: hirugarren koadernoko datu-sarreraren egoera lurraldeka

	informatizatuta	Informatizatzeko	guztira
BIZKAIA	36	0	36
ARABA	1	0	1
GIPUZKOA	36	0	36
NAFARROA	27	0	27
LAPURDI	15	0	15
NAF. BEHEREA	14	4	18
ZUBEROA	12	0	12

Datu-sarreraren egoera orokorra

Ondoko taulan adierazten da 145 herrietako bost koadernoetan dauden datuak zenbateraino sartuak diren ordenagailuan:

3. irud.: datu-sarrera osoaren egoera 1998. urtearen amaieran



Datuen lantzea

Datuen lantzerako eta argitalpenerako aplikazio informatikoa amaitu ondoren ekin zaio datuak lantzeari. Urrats hauek ematen dira inkestako galdera bakoitzaren erantzuna prestatzerakoan:

- a) corpora zuzendu, txukundu eta egokitu,
- b) datuen zuzentasuna eta egokitasuna bermatu,
- c) mapako leiendetan beharrezkoak diren oharra eraiki eta ñabardurak adierazi,
- d) erantzunen lematizazioa egin,
- e) maparako sekuentzializatzeari ekin,
- f) ondoren, mapak burutu (galderako mapa nagusia eta beharrezkoa denean mapa txiki bat),
- g) azkenik, lema eta superlema bakoitzari kolore bat ezarri.

Datuen edizioa

Hona hemen argitalpenaren ezaugarri batzuk:

- bi argitalpen mota izango dira: bata, paperean, atlasa bera eta bestea, disketean, CD-ROMa. Paperean, jasotako erantzunak eta horien mapak eskainiko dira, eta CD-ROMean, berriz, mapak eta datu-basea.
- Paperean argitaratuko den atlasa A4 neurrikoa izango da.
- Argitaratzeko modua autoedizioa izatea espero da. Editoreek, datuak lantzeaz gain mapagintzarako lematizazioa burutuko dute, eta mapetarako lehen hurrenkera eman eta mapak eraiki ostean guztia argitaratzeko prest utziko dute Publisher programa erabiliz.
- Atlasak 2.857 galdera ditu guztira. Liburu bakoitzean, batzuek beste 270 galderaren erantzunak sartzea begiz jo da. Atlasak, guztira, 10-12 liburuki izango ditu.


Aurten -1998an- 1. liburukian joango diren mapak prestatu dira: 268 galderaren erantzunak bilduko dira hor. Hauek dira bertan jasotako gaiak: erreko arrainak, narraziak, txoriak, piztiak, zerua eta eguzkia, eguraldia, elurra eta hotza.

145 herritako euskararen lagina CDan

Egitasmo honen xedea, 145 herritan Atlasarako egin diren inkestetatik minutu eta erdiko lagina eskaintzea da. Emaiza CDan eta paperean eskainiko da. Batetik, CDrako iaz prestatu ziren laginak berrikusi eta bateratu egin dira. Bestetik, laginen testua jasoko duen liburua prestatzeko, iaz egindako traskripzioa aztertu eta zuzendu egin da eta maketazioa egiten hasi.

ERANSKINA

EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA
DATU SARRERA: 3. ATALA (1998-XII-31)

1998an 

INKESTERRIA	A T A L A K				
	1	2	3	4	5
101 Getxo					
102 Leioa					
103 Zollo					
104 Sondika					
105 Laukiz					
106 Lemoiz					
107 (Uribe-) Etxebarri					
108 Zaratamo					
109 Orozko					
110 Mungia					
111 Zeberio					
112 Bakio					
113 Fika					
114 Larrabetzu					
115 Arrieta					
116 Lemoa					
117 Dima					
118 Zeanuri					
119 Errigoiti					
120 Bermeo					
121 Busturia					
122 Euba					
123 Mañaria					
124 Otxandio					
125 Ibarri					
126 Mendata					
127 Kortezubi					
128 Elantxobe					
129 Berriz					
130 Arrazola					
131 Elorrio					
132 Bolibar					
133 Gizaburuaga					
134 Lekeitio					
135 (Markin.-) Etxebarri					
136 Ondarroa					
201 Aramaio					
301 (Leintz-)Gatzaga					
302 Arrasate					
303 Eibar					
304 Araotz (Oñati)					
305 Oñati					

INKESTERRIA	A T A L A K				
	1	2	3	4	5
306 Bergara					
307 Elgoibar					
308 Mendaro					
309 Deba					
310 Azkoitia					
311 Urretxu					
312 Legazpi					
313 Zegama					
314 Ezkio-Itsaso					
315 Zestoa (Arroa)					
316 Azpeitia					
317 Getaria					
318 Beizama					
319 Beasain					
320 Ataun					
321 Errezil					
322 Aia					
323 Orio					
324 Asteasu					
325 Ikaztegieta					
326 Amezketa					
327 Tolosa					
328 Donostia					
329 Lasarte					
330 Andoain					
331 Elduain					
332 Oresa					
333 Hernani					
334 Pasaia					
335 Oiartzun					
336 Hondarribia					
401 Urdiain					
402 Arbizu					
403 Dorrao					
404 Gaintza					
405 Leitza					
406 Etxarri					
407 Oderitz					
408 Goizueta					
409 Ezkurra					
410 Beruete					
411 Igoa					
412 Etxaleku					
413 Suarbe					
414 Sunbilla					
415 Donamaria					
416 Etxalar					
417 Alkotz					
418 Aniz					
419 Lekaroz					
420 Zugarramurdi					

INKESTERRIA	A T A L A K				
	1	2	3	4	5
421 Eugi					
422 Erratzu					
423 Zilbeti					
424 Mezkiritz					
425 Luzaide					
426 Abaurregaina					
427 Eiaurrieta					
501 Hendaia					
502 Donibane-Lohizune					
503 Azkaine					
504 Sara					
505 Senpere					
506 Ahetze					
507 Arrangoitze					
508 Uztaritze					
509 Mugerre					
510 Itxasu					
511 Urketa					
512 Beskoitze					
513 Hazparne					
514 Makea					
515 Bardoze					
601 Aldude					
602 Bidarra					
603 Baigorri					
604 Arnegi					
605 Uharte-Garazi					
606 Irisarri					
607 Isturitze					
608 Arruta-Sa.					
609 Armendaritze					
610 Esterenzubi					
611 Gamarte					
612 Landibarre					
613 Behorlegi					
614 Arboti					
615 Garruze					
616 Jutsi					
617 Larzabale					
618 Bastida					
701 Phagola					
702 Domintxine					
703 Urdiñarbe					
704 Altzürükü					
705 Larrañe					
706 Altzai					
707 Sohüta					
708 Muntori					
709 Santa-Grazi					
710 Ürrüxtoi					
711 Barkoxe					
712 Eskiula					

II.1.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

Onomastika batzordeak 1998an zehar 19 bilera egin ditu.

Euskal Deitura Izendegia

Euskal Deituren Izendegia 1998an argitaratu da, uste eta nahi baino beranduago, baina horrek 1997an zehar onartutako deiturak izendegi horretan sartzeko aukera eman du.

Batzordea, liburu horretan agertzen ez diren beste deitura batzuk erabakitzen joan da 1998an zehar. Ondoren adierazten dira deitura horiek. Ia denak deitura berriak dira; hala ere, badira banaka batzuk izendegian agertzen direnak baina euskarazko ordainean aldaketa egin zaienak. Kasu batean izan ezik, egindako aldaketa guztiak gehiketazkoak dira. Hona hemen deitura horiek guztiak:

<i>Agesta: Aiesta</i>	<i>Cirion: Zirion</i>
<i>Amechazurra: Ametzazurra</i>	<i>Cipitria: Zipitria</i>
<i>Amoriza: Amoritza</i>	<i>Corres: Korres</i>
<i>Amuriza: Amuritza</i>	<i>Echegüena: Etxeguena</i>
<i>Aranas: Aranatz</i>	<i>Eguidazu: Egidazu</i>
<i>Arcelus: Artzelus / Artzeluts</i>	<i>Eguirazu: Egirazu</i>
<i>Arco: Arko</i>	<i>Egusquizaga: Eguzkitzaga / Eguskitzaga</i>
<i>Arguinzoniz: Arginzoniz</i>	<i>Elespe: Elespe / Elexpe</i>
<i>Arnaiz: Arnaiz</i>	<i>Elorduizapatarietxe: Elorduizapatarietxe</i>
<i>Arostegui: Aroztegi / Arostegi</i>	<i>Elorduyapatarietxe: Elorduyapatarietxe</i>
<i>Arrache: Arratxe</i>	<i>Endeiza: Endeitza</i>
<i>Arritokieta: Arritokieta</i>	<i>Erecacho: Erekatxo</i>
<i>Arzac: Arzak</i>	<i>Ergüin: Erguin</i>
<i>Ascaiturrieta: Askaiturrieta</i>	<i>Escamendi: Ezkamendi</i>
<i>Ascasua: Askatsua / Askatzua</i>	<i>Esurza: Eskurtza</i>
<i>Aseguinolaza: Aseginolatza</i>	<i>Escuza: Eskutza</i>
<i>Aspiazu: Aspiazu</i>	<i>Estiballes: Estiballes / Estiballez</i>
<i>Astica: Astika</i>	<i>Ezeizabarrena: Ezeizabarrena</i>
<i>Auricenea: Auritzenea</i>	<i>Fernandez de Arroyabe: Fernandez de Arroiyabe</i>
<i>Aza: Aza</i>	<i>Gamecho: Gametxo</i>
<i>Azcanabieta: Azkanabieta</i>	<i>Garavilla: Garabilla</i>
<i>Azcarate-Ascasua: Azkarate-Askatsua</i>	<i>García de Vicuña: Gartzia de Bikuña</i>
<i>Azpiazu: Aspiazu</i>	<i>Gaubeca: Gaubeka</i>
<i>Beraeche: Beraetxe</i>	<i>Gaztelu-urrutia: Gazteluurrutia / Gaztelurrutia</i>
<i>Berrojaechevarria: Berrojaechebarria</i>	<i>Gongueta: Gongeta</i>
<i>Berrojalbiz: Berroialbiz</i>	<i>Gorostizu: Gorostizu</i>
<i>Blasco: Blasko</i>	<i>Guaristi: Juaristi</i>
<i>Calzada: Kaltzada</i>	<i>Guilarte: Gilarte</i>
<i>Camara: Kamara</i>	<i>Guilzarte: Giltzarte</i>
<i>Canive / Canibe: Kanibe</i>	<i>Guisasola: Gisasola</i>
<i>Capelastegui: Kapelastegi</i>	<i>Humaran: Umaran</i>
<i>Caspistegui: Kaspistegi</i>	<i>Ibarvengoa: Ibarvengoa</i>
<i>Cenicacelaya: Zenikazelaia</i>	<i>Ibarvengoechea: Ibarvengoechea</i>
<i>Chasco: Txasko</i>	<i>Ichaso: Itxaso / Itsaso</i>

<i>Ichaso-asu: Itxasoasu / Itsasoasu</i>	<i>Olazaguirre: Olatzagirre</i>
<i>Ichasogoyena: Itxasogoiena / Itsasogoiena</i>	<i>Olivares: Olibariz</i>
<i>Idoquilis: Idokiliz</i>	<i>Orbegozo: Orbegozo</i>
<i>Inchalo: Intxalo</i>	<i>Orueechevarria: Orueetxebarria</i>
<i>Irazusta: Irazusta</i>	<i>Osacain: Otsakain</i>
<i>Iruarritz: Iruarritz</i>	<i>Otaolaurruchi: Otaolaurrutxi</i>
<i>Iruguenpagate: Iruguenpagate</i>	<i>Quintana: Kintana</i>
<i>Isco: Izko</i>	<i>Renovales: Renobales</i>
<i>Iscoa: Izkoa</i>	<i>Saez de Jauregui: Saez de Jauregi</i>
<i>Isurrategui: Izurrategi</i>	<i>Sainz de Varanda: Sainz de Baranda</i>
<i>Izarcelaya: Itzarzelaia / Izarzelaia</i>	<i>Saldise: Saldise</i>
<i>Izarcelaya: Izarzelaia / Itzarzelaia</i>	<i>Salvide: Zalbide / Salbide</i>
<i>Izcara: Izkara</i>	<i>San Agustin Echevarria: Sanagustinetxebarria</i>
<i>Lacha: Latxa</i>	<i>Santacara: Santakara</i>
<i>Lanceta: Lantzeta</i>	<i>Sololuce: Sololuze</i>
<i>Larumbe: Larunbe</i>	<i>Sorriqueta: Sorriketa</i>
<i>Leanizbarrutia: Leanizbarrutia</i>	<i>Sucunza: Sukuntza</i>
<i>Leanizbeascoa: Leanizbeaskoa</i>	<i>Treviño: Trebiño</i>
<i>Leiva: Leiba</i>	<i>Uceta: Utzeta</i>
<i>Linacisoro: Linazisoro</i>	<i>Unzalu: Untzalu</i>
<i>Lopez de Echezarreta: Lopez de Etxezarreta</i>	<i>Urcelay: Urtzelai / Urzelai</i>
<i>Malvadi: Malbadi</i>	<i>Urriticoechea: Urritikoetxea</i>
<i>Marcos: Markos</i>	<i>Urzuriaga: Urzuriaga</i>
<i>Manchobas: Mantxobas</i>	<i>Uzquiano: Uzquiano</i>
<i>Manso: Mantso</i>	<i>Vara: Bara</i>
<i>Maquivar: Makibar</i>	<i>Varanda: Baranda</i>
<i>Moja: Moxa</i>	<i>Veci: Bezi</i>
<i>Monasterio: Monasterio</i>	<i>Vela: Bela</i>
<i>Muguruza: Mugurutza</i>	<i>Yabar: Iabar / Ihabar</i>
<i>Navascues: Nabazkoze</i>	<i>Yanci: Iantzi / Igantzi</i>
<i>Olabecela: Olabezela</i>	<i>Zaracondegui: Zarakondegi</i>
<i>Olabegoya: Olabegoia</i>	<i>Zenecorta: Zenekorta</i>
<i>Olaciregui: Olaziregi</i>	<i>Zinzunegui: Zintzunegi</i>
<i>Olachu: Olatxu</i>	<i>Zorraquin: Zorrakin</i>
<i>Olabegoya: Olabegoia</i>	<i>Zorriqueta: Zorriketa</i>
<i>Olaya: Olaia</i>	<i>Zumaque: Zumake</i>

Udal eta herrien izenak

Ondoren zenbait udalek eta administrazio-batzarrek egindako eskaerak jasotzen dira. Onomastika batzordean behar den dokumentazioa bildu eta gaiak aztertu eta eztabaidatu ondoren, kasuan kasuko erabakiak hartu dira. Ezkerreko aldean ematen den izena da une honetan udalek edota kontzejuek dutena, eta eskuinean adierazten da zein den batzordeak hobetsitako forma.

Udal-izenei buruzko irizpenak

- Garay: Garai
- Bériz: Berriz
- Villabona: Villabona-Amasa

Arabako kontzeju-izenak

Euskal izenak ofizialtzeko, jaso diren irizpen-eskabide hauei erantzun zaie:

- *Cerio: Zerio*
- *Echegoyen: Etxegoien*
- *Eguilaz: Egilatz*
- *Ezquerecocha: Ezkerekotxa*
- *Gaceo: Gazeo*
- *Gamarra Mayor: Gamarra Nagusia / Gamarra Mayor*
- *Langarica: Langarika*
- *Hijona: Ixona*
- *Mendarozqueta: Mendarozketa*
- *Ordoñana: Erdoñana*
- *Subijana de Álava: Subilla / Subijana Gasteiz*
- *Troconiz: Trokoniz*
- *Ullibarri-Cuartango: Uribarri Kuartango / Ullibarri Kuartango*
- *Urbina de Eza: Urbiza Eza*
- *Viloria: Biloría*

Nafarroako herri-izendegiaren berrazterketa amaitu

"Nafarroako toponimia nagusiaren azterketa" izeneko txostena aztertu du batzordeak. Nafarroako herri-izen hauek aztertu eta erabaki dira, Nafarroako Toponimia Batzordearen eskariz:

Arazuri, Asterain, Gorocin, Ezporogi, Geretz, Gerendain (Erroibar), Girgillao, Barindao, Gindao, Esa / Yesa, Busto, Los Arcos, Deikastelu / Dicastillo, Eparotz, Eristain, Espronceda / Esprontzedá, Gartzarun, Castillonuevo / Gazteluberri, Hiriberri, Murillo-Deierri, Otxobi, Romanzado / Erromantzátua, Sansol / Santsol, Olatz Subitza, Bortzerriak / Bortzirriak.

Zuberoako herri-izendegia

Lehenik, Euskaltzaindiak bere egunean hobetsi zuen zerrenda aztertu da, eta ondoren erabili beharreko irizpideak eztabaidatu dira. Zuberoako euskaltzain baten proposamena aztertu da, eta Zuberoako euskaltzale aditu zenbaiti kontsulta egin zaie, batzordearen bileretan parte hartzera deituz.

Euskaltzain osoen batzarrean aurkeztu da -azarokoan- Zuberoako herri-izendegia, eta abendu-dukuan onartu.

Ponte Izendegia

Ponte zendegi berrian sartu behar diren izen-motak erabaki aurretik, irizpide desberdinak eztabaidatu dira, eta azkenik, gure artean erabiliak izan direnak baino ez sartzea erabaki da.

Emakumezkoen eta gizonezkoen kristau tradizioko kideen izenak aztertu dira, Euskaltzaindiak santuentzat onartutako izenei hainbat gehiketa eginez eta zerrenda osatuz.

Berariaz eztabaidatu den gaia generoarena izan da: gainerako hizkuntzetako erabilera, euskarazkoa (Erdi Aroko testigantzak, legiazioa, gaitzizenen testigantza...).

Zuberoako Andra Marien zerrenda aztertu da, ponte-izendegian sartzeko.

Banaketa nagusi hau onartu du batzordeak:

- erabilera;
- hizkuntzaren aldetiko zuzentasuna: euskal jatorrizkoak, biblia eta santuen izenak, erlijio-santutegietako izenak, Arana Elizalderen izendegiko izenak, izen arruntak edo toponimoak diren izenak, mundu klasiko greko-erromatarretik datozen izenak;
- gizon eta emakume izenen arteko bereizketa;
- izen ez gomendatuak;
- grafia okerrekoak.


Exonomastika

Esparru honetan ere zenbait puntu landu ditu batzordeak:

- Euskaltzaindiak argitaratutako munduko estatuen zerrendan *Sao Tome eta Principe* zuzentzea.
- Probintzien izenei buruzko arauan *Albacete* forma sartzea.
- Herbereetako *La Haya* hiriaren euskal ordain bezala *Haga* hobestea.

Toponimia-lanak gainbegiratu

– *Oronimia Izendegia*: Mendi Federazioak mendien katalogoa berrargitaratzeko asmoa duela eta, irizpena eskatu dio Onomastika batzordeari. Alde batetik, lehengo Mendi Katalogoa berraztertu da, eta bestetik proposatutako izen berriak.



– Ministerio de Fomento-ko Instituto Geográfico Nacional-ek eskatuta Euskal Herriko zenbait tokiri dagozkien 1:25.000 eskalako mapak berrikusi dira. *Lekeitio*, *Armintza*, *Bermeo*, *Santurtzi*, *Bilbo*, *Barakaldo* eta *Leioa* izeneko mapetan agertzen diren toponimoak aztertu dira.

– Bergarako Toponimia egiten ari direnen eskabideari erantzunez, batzordekide bat eta aditu bat izendatu dira azterlan horren begirale-lana egiteko.

- Lea Artibaiko Amankomunazgoak egindako mapak zuzentzeari ekin zaio.
- Donostiako kale-izendegiari behin-behineko onarpena eman zaio.
- Ermuko Udalak, herriko toponimia bildu eta normalizatzeko Euskaltzaindiaren laguntza eskatu du. Lan horretan laguntzeko, batzorde-idazkaria proposatzea erabaki du batzordeak.
- Bilboko kale izendegiaren behin-behineko proposamena aurkeztu du idazkariak batzordean.
- Zangozako kale-izenez egindako eskaera aztertu da eta onartu.

Erakundeen eta elkarte desberdinen kontsultak

– Artzibarreko Udalak eskatuta, bertako auzo-izen hauek hobetsi dira: *Artzi, Arizkuren, Arrieta, Artozki, Asnotz, Azoarren, Ekieta, Ekiza, Espotz, Gorraitz, Gurpegi, Imizkotz, Lakabe, Lusarreta, Muniain, Muniain-Artzibar, Nagore, Olorizgoiti, Olorizbeiti, Otsa, Saragueta, Olozi, Uliberri, Urdirotz, Uritz, Urrobi, Usotz, Hiriberri, Hiriberri-Artzibar, Zandueta* eta *Zazpe*.

– *Deba Behereko Mankomunitatea*-ren izena aldatzeko eskabidea ontzat eman du batzordeak, *Deba Beherea*-ren ordez *Debarrena* hobetsiz.

– Durangoko Erregistro Zibiletik ea *Aiane* emakumezkoentzako izen zuzena den galdetu dute. Batzordeak *Aia* izena hobestea erabaki du.

– Ermuko Errolda Zibiletik egindako galderari erantzunez, *Iraitz* pertsona-izena gizonezkoentzat hobestea erabaki da.

– *Ibaizabal* ibai-izenaz Euskaltzaindiak Bizkaiko Foru Aldundiari egindako irizpenaren ondoren komunikabideetan agertu gatazkaren aurrean, prentsa-oharra egin du Euskaltzaindiak, Onomastika batzordeak proposatuta.

– Iruñeko Udalak, hiriaren izena nola deklinatu behar den galdetu du. Hona batzordearen erantzuna: *Iruñea*, baina *Iruñeko, Iruñetik, Iruñetzat*, etab.

– Lezoko Udalak eskatuta, bertako kiroldegiaren izena finkatzeko *Bekoerrota* hitza hobetsi du.

– Markina-Xemeingo Udalaren kontsulta, bertako industrialde baten izena nola jarri behar den: *Santixo, Kareia-aldea...* Batzordeak *Kareaga* edo *Kareagaldea* gomendatu du.

– *Toloño* mendikatearen izena dela-eta, aurkitu diren testigantzen aurrean, txosten sakonagoa egitea erabaki du batzordeak.

Kontsulta solteak

Baiezkoa eman zaie galdera hauei:

- *Arantxa* ponte-izena ofizialtzea.
- *Esain* gizonezkoen izena euskaraz *Etsain* da.
- *Ihabar* gizonezkoen izena.
- *Ioar* gizonezkoen izena euskaraz *Joar* da.
- *Jule* izena *Julia*-ren kidetzat eman da.
- *Luberi* leku-izena emakume-izen bezala erabiltzeko *Luberia* da.
- *Olate* pertsona-izena emakumezkoak izendatzeko egokia da.

Ezezkoa eman zaie eskabide hauei:

- *Agare* emakume-izena onartzeari. *Agara* edo *Agar* behar luke.
- *Cabieces* deitura euskaratzeari.
- *Costa* deitura euskaraz jartzeari.

- *Cuesta* deitura *Aldapa* bihurtzeari.
- *Frantxina* emakumezko izena jartzeari.
- *Garrachon* deituraren grafia aldatzeari.
- *Ibaitz* izena onartzeari.
- *Xanet -Janet*-en izen hipokoristikoa- ofizialtzeari.
- *Joxe -Jose*-ren aldaera hipokoristikoa- ofizialtzeari.
- *Malen* emakume-izena onartzeari; horren ordez *Madalen* jar liteke.
- *Maria Gema*-ren ordain bezala *Mari Jema* jartzeko eskaerari; horren lekuan *Mari Gema* gomendatu da.
- *Mercero* deitura euskaraz emateko eskabideari.
- *Mujika* deitura onartzeko eskabideari; *Muxika* behar du izan.
- *Naiz* pertsona-izen bezala ofizialtzeko eskabideari.
- *Olazti* emazkume-izen bezala ofizialtzeko eskabideari.
- *Viriga* deitura *Biriga* bezala idazteko egindako eskabideari.

II.1.5. LITERATURA BATZORDEA

II.1.5.1. HERRI LITERATURA AZPIBATZORDEA

Herri Literatura azpibatzeak 1998an zehar 10 bilera egin du.

V. Herri Literaturako Jardunaldiak

Antonio Maria Labaien mendeurrenean, 1998ko azaroaren 13an eta 14an egin dira, Tolosako Antonio Maria Labaien Kultur Etxean, Euskaltzaindiaren V. Herri Literatura Jardunaldiak. Hitzaldi eta txosten hauek irakurri dira:

- Patri Urkizu, euskaltzain urgazle eta UNEDeko irakasle titularrak: "Antonio Maria Labaien. Euskal herri-antzerkiaren erak eta aldaerak".
- Josep Lluís Sirera, Valentziako Unibertsitateko irakasleak: "El teatro valenciano en su contexto festivo".



Tolosako Antonio Maria Labaien Kultur Etxean, 1998-XI-13an, V. Herri Literatura Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Xabier Kaltzakorta, Juan Mari Lekuona, Antton Aranburu.

- Beñat Oihartzabal, euskaltzain oso eta Iker sailburuak: "Noizkoak diren Zuberoako pastorei dagozkien lehen dokumentuak".
- Txomin Peillen, euskaltzain oso eta Paueko Unibertsitateko irakasle ohiak: "Galarrotsak, Zintzarrotsak, Toberak...".
- J. M. Lekuona, euskaltzain oso eta Literatura batzordeburuak: "Pedro Ignazio de Barrutia: *Gabonetako Ikuskizuna*"
- X. Kaltzakorta, euskaltzain urgazle eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak: "Sebastian Antonio de la Gandararen euskal lanak".

- A. Arejita, euskaltzain urgazle eta Deustuko Unibertsitateko irakasleak: "Peñafloridaren literatura eta hizkera ekarriaz".
- Marzel Etchehandi, euskaltzain urgazleak: "Bestaberri eta bere sinbolika".
- Jose Mari Aranalde, euskaltzain urgazleak: "Orixeren *Euskaldunak* eta festa-giroa".
- Juan San Martin, euskaltzain osoak: "Antonio Maria Labaien euskaltzainaren oroipenez".
- Joxe Ramon Zubimendi, euskaltzain urgazleak: "Antonio Maria Labaien hitz bitan" ikus-entzunekoa.
- Francesc Massip, Tarragonako Rovira i Virgili Unibertsitateko irakasleak: "El infierno en escena: presencia diabólica en el teatro medieval europeo y sus pervivencias tradicionales".
- Kepa Fernandez de Larrinoa, Euskal Herriko Unibertsitateko Antropologia irakasleak: "Maskaradetako ahozko literatura" .

Hitzaldi hauez gainera, mahai-ingurua izan da herri antzerkiaz, Jean Haritschelhar euskaltzainburuaren gidaritzapean:

- Mattin Irigoien, idazleak: "Tobera berriak".
- Antton Luku, idazleak: "Oraingo antzerkia".
- Jean-Louis Davant, euskaltzain osoak: "Pastoralaren aldaketaz".

Herri-literaturaren inguruko ekintzak

Bertso jarrien sariketa hauetako epaimahaietan hartu dute parte azpibatzerde honetako kideek:

- Zarauzko "Basarri" sarian Juan Mari Lekuonak eta Abel Muniategik.
- Oresako "Orixe" sarian Jose Mari Aranaldek.
- Zarautzen bertsolari gazteentzat antolatutako "Lizardi" sarian Pello Esnal izan da gidari eta epaimahaiko.

Omenaldietan parte hartu dute eta hitzaldiak eman dituzte azpibatzerde honetako kideek:

- Pedro Mari Otañoren omenez Donostian egin diren aste kulturala eta bertso-jaialdia antolatzen eta egituratzen jardun dute Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi eta Pello Esnalek.
- Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, urtarrilaren 21ean, hitzaldia eman du Antonio Zavalak: "Pedro Maria Otaño bere bertsoen leiotik".
- Donostiako Koldo Mitxelena Kulturunean, urtarrilaren 22an, hitzaldia eman du Pello Esnalek: "Otaño: Errekaldeko intxaurrondoaren itzala".
- Donostiako Atano III.a pilotalekuan, urtarrilaren 24an, Bertso Egunean, zenbait bertso antzeztu ziren Pello Esnalen gidoiaren arabera eta Joxe Ramon Zubimendiren gidaritzapean.

Kanpoko Jardunaldietan parte hartu dute azpibatzerdeko hauek:

- Alcalá de Henares-ko Unibertsitateak antolatutako jardunaldietan hitzaldi bana eman dute Antonio Zavalak eta Xabier Kaltzakortak "Formas etnopoéticas breves" gaiaz.
- Las Palmas de Gran Canaria-ko Unibertsitateak antolatutako "VI Encuentro-Festival de la Décima y del Verso Improvisado" Jardunaldietan hitzaldia egin du Antonio Zavalak.
- Iruñean, "IV Congreso de Antropología Aplicada" delako biltzarrean hitzaldia egin du Xabier Kaltzakortak: "Creencias, refranes y adivinanzas acerca de *laratz*".
- Kordoban, "II Congreso Internacional de Paremiología"n hitzaldi hau egin du Xabier Kaltzakortak: "Estructura de los refranes metereológicos castellanos, franceses y vascos".

II.1.5.2. LITERATURA IKERKETA AZPIBATZORDEA

Literatura Ikerketa azpibatzen urtean zehar 11 bilera egin du. Euskal literaturaren alorrean oso gutxi landua dagoen gai hau aztertzen eta burutzen ari da azpibatzen: Euskal Literatura Hiztegia. Hiztegi horrek, hitz-zerrendaz gain, literaturako hitz garrantzitsuenen azalpenak emango dituzten maila eta neurri ezberdineko txostenak eskainiko ditu: txosten luzeak, ertainak eta laburrak. Hiztegiak, guztira berrogeita bat artikuluz luze, ehun artikuluz ertain eta seihun artikuluz labur izango ditu.

Idatzi eta eztabaidatutako txostenak

Batzordeak urtean zehar honako artikuluz hauek prestatu eta eztabaidatu ditu (marka hau -(*)- duten txostenak egileek berridatzi egin dituzte eta batzordeak berraztertu):

a) Artikuluz luzeak, batezbeste 7-8 orrialdekoak:

- Kritika genetikoak
- Metrika

b) Artikuluz ertainak, batezbeste 2-3 orrialdekoak:

- | | |
|-----------------|------------------------|
| - Analogia (*) | - Hamalauko (*) |
| - Bertsogintza | - Konta-poesia |
| - Bertso-papera | - Kritika soziologikoa |
| - Bihurki (*) | - Lizentzia poetikoa |
| - Egunkari | - Neurria |
| - Errima (*) | - Topos |

c) Artikuluz laburrak, normalean orrialde batekoak:

- | | |
|----------------------|------------------------|
| - Adimen-irudiak (*) | - Erosta |
| - Aferesi | - Espondeo |
| - Akrostiko | - Eten |
| - Albiste | - Eufonia |
| - Anafora (*) | - Eztei kantuak |
| - Anakrusi (*) | - Gorazarre |
| - Antonomasia | - Hamarrekoa |
| - Apokope | - Haur literatura |
| - Artazuriketa | - Hemistikio |
| - Artxirakurle | - Hemezortzi silabakoa |
| - Asonantzia (*) | - Hiato |
| - Bederatzi puntukoa | - Homofonia |
| - Bertso berriak (*) | - "Invective" |
| - Betegarria | - Irri-marra |
| - "Coupling" | - Kanon |
| - Daktilo | - Kantika (*) |
| - Diatriba | - Kapitulu |
| - Dieresi | - Kateatze |
| - Elegia | - Kitsch |
| - Epigrama (*) | - Klitxe |

- Kriptograma
- Kronika
- Kultismo
- "Laisse"
- Leienda
- Lira (*)
- "Mester de clerecía"
- "Mester de juglaría"
- Metaliteratura
- Motibo
- Musa
- Oda
- Oxitono
- Paraxitono
- Polisemia
- Poto
- Proparoxitono
- Sinestesia
- "Trait final"
- Txandatze
- Txertatze
- Zortzikoa
- Zortzi puntukoa

II.1.6. BATZORDE SUNTSIKORRAK

II.1.6.1. EUSKARA BATUKO BATZORDEA

Euskararen batasunerako bidean, gai jakin bat hizkuntz arau bihurtu behar denean Euskaltzaindiak kasuan kasuko erabakia hartzen du. Azken proposamena euskaltzain osoen batzarrari aurkezten diona Euskara Batuko batzordea da, nahiz eta gaien azterketa eta oinarrizko proposamenak dagokion batzordetik prestatuak datozen.

Euskara Batuko batzordeak, hala derizkion kasuetan, ohargileei eta iritzi-emailei kontsulta egiten die. Pertsona horiek, gehienak, Euskaltzaindiaz kanpokoak dira, euskalgintzako alor desberdinetan lanean ari diren profesionalak: administrazioetako funtzionarioak, argitaletxeetako eta komunikabideetako euskara-zuzentzaileak, irakaskuntza-munduko teknikariak, itzultzaileak, idazleak eta abar.

Euskara Batuko batzordeak 1998an zehar 19 bilera egin du.

Araugai berriak

Dagokion batzordetik (aurten Hiztegi Batukotik, Gramatikatik, Onomastikatik eta Ahoskeratik) zetozen txosten eta hitz-zerrenda hauek aztertu eta eztabaidatu ditu batzordeak hilez hil. Ondoren, euskaltzain osoen hileroko batzarrean aurkeztu dira txostenak, oharrak egiteko epea jarri delarik. Euskaltzain osoek egindako oharrak ere aztertu ditu batzorde honek eta bere iritzia ere eman du erabakia hartu behar zen hurrengo osoko bilkuran, I.2. atalean esan bezala. Hitz-zerrenda eta txosten hauek izan ditu batzorde honek eztabaidagai:

Hiztegi Batua

Batzordeak, batetik, Hiztegi Batuko lantaldetik jaso dituen hitz-zerrenda hauek aztertu ditu:

1. *koartel* - *kontsultatu*
2. *kontsumitu* - *lan*
3. *lanabes* - *lekoa*
4. *lekora* - *lozorro*
5. *lubaki* - *makina*
6. *makineria* - *matrikulatu*
7. *matrize* - *mintzura*
8. *minuet* - *nahastura*
9. *nahi* - *oihan*
10. *oihanbide* - *orburu*

Bestetik, euskaltzain osoek zerrenda hauei egin dizkieten 720 ohar edo hitz aztertu ditu batzorde honek, eta horiei buruzko bere proposamena aurkeztu du hileroko osoko bilkuretan, onartzekoa den esanez edo baztertzekoa den, hurrengo itzulirako uztekoa den, informazio gehiago bildu eta hurrengo bilkuran erabakitzekoa den, etab.

Gramatika

- "Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma"
- a) "Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma" eztabaidatu eta

- b) Oharrak: partizipioa Ekialdeko erabileran eta zubereran; etorkizunekoan noiz -EN eta noiz -KO.

Onomastika

- "Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak"
- Txosten hau berriz aztertu da.
 - Oharrak: *Belerofon, Belerofonte; Laomedon, Laomedonte; Karon, Karonte; Laokoon, Laokoonte; Martitz, Marte.*
- "*Santu, san, done* eta inguruak"
- Onomastika batzordeak aurkeztu dituen txosten honen hiru idatzaldi aztertu dira.
 - Oharrak: *andre dena; andre dona; jaundone; jaun doni; jondoni; jondone; jondane; jundane; san, santa; santu.*

Ahoskera

- Ahoskera batzordeak 1994ko Leioako Biltzarrean aurkeztutako txostena aztertu da.
- "Euskara Batuaz" (1. idatzaldia)
- "Euskara Batuaz" izeneko txostena eztabaidatu.
 - Oharrak: *g/j* auzia eta palatalizazioa; bokal elkarketetan ahoskera zaindua eta behe-ahoskera; adibideak gehitu; bokal arteko hatxea; bokaletan <u>ren (y) ahoskera; <ea>, <ia>, <oa>, eta <ua> bokal elkarketen ebakitzea; <h>, <j>, <ñ, in>, eta <x> kontsonanteen ahoskera; adberbioa + *b, d, g, z* kontsonante elkarketa.
- "Euskara Batuaren ahoskera zaindua" (2. idatzaldia)
- "Euskara Batuaren ahoskera zaindua" izeneko txostena eztabaidatu.
 - Oharrak:
 - atarikoan, batasunaren zergatiak argitu;
 - ahoskeraren aniztasuna, arauen malgutasuna eta arauak nola ulertu behar diren;
 - zubereraren *ü*-ren ahoskatzea;
 - <ea, oa> eta <ia, ua> ahoskerak hizkera-maila ezberdinetan;
 - <ui> diptongoaz;
 - azken orduko maileguen salbuespenak;
 - <b, d, g, r> kontsonanteak bokal artean galtzea;
 - zihoan, zihoazen* hitzen hatxearen aspirazioa;
 - in* + bokala eta *il* + bokal bilkuretan ematen den palatalizazioa;
 - <r, rr> kontsonanteen frantsesezko ahoskera ubularra eta <z>ren gaztelaniazko ahoskera hotzartekoa;
 - majia, magia*;
 - kultismoen <x>ren ebakera;
 - adberbioaren ondoko <n, d, g> leherkariak <p, t, k> bihurtzea;
 - <zz> nahitaez <tz> ebakitzea;
 - <nz, lz, rz> eta <ns, ls, rs> kasuetan ere gauza bera egitea;
 - <zn, zl, zh> bilkurak;
 - hizkera maila ezberdinak;
 - ahoskera zaindua eta ahoskera arrunta;
 - yeismoa;
 - <z/ > kontsonante bilkura.

Txostenak

- "Santuak izen berezi gisa izendatzerakoan erabiltzen den molde bereziaz."
Txosten hau batzordekide batek prestatu du, Onomastika batzordeak aurkeztutako "*Santu*,"

san, done eta ingurukoak" araugai delata. Txosten hori batzorde barruan erabili da, eta ez zaie iritzi-emaileei pasatu.

- "*Santu, san, done* eta ingurukoak txostenari egin oharrak eta gomendio erabakia". Txosten hau ere batzordekide batek prestatu du Onomastika batzordearen aipatu araugaiaz.
- "Santuak zuzenean aipatzean erabiltzen den formaz": batzordekide berak, aurreko puntuan aipatu den txostenaren bigarren idatzaldia aurkeztu du batzordean.
- Onomastika batzordetik jasotako proposamena aztertu da eta ontzat eman. Hau da: HABEtik gaztelaniazko *Albacete* euskaraz nola idatzi behar den galdetu dute, izen hori ez baita 32. arauan ageri, hots, "Espainiako erresumako probintzia eta elkarte autonomoen izenak" izenekoan. Onomastika batzordearen proposamenarekin bat etorri da Euskara Batuko batzordea, eta *Albacete* forma proposatu zaie euskaltzain osoei.

Hizkuntza kontsultak

- Santurtziko Udal Euskaltegitik egindako galderari erantzun zaio, dataren idazkeraz. "1997.eko uztailean" zein "1997ko uztailean" erabil daiteke.
- Bilbao Bizkaia Kutxatik, agintekeran aditzoina nola jarri behar den (*har ezazu ala hartu ezazu*) egindako galderari erantzun zaio. Euskaltzaindiak espreski erabaki ez badu ere, gaur egun euskara batuan forma erabiliena *har ezazu* dela erantzun da.
- Elorrioko Bigarren Hezkuntzako Institututik egindako galderari, *arazi* aditzak ez duela berezkoa *-i* erantzun zaio; subjuntiboan *araz* egin behar du.

II.1.6.2. AHOSKERA AZPIBATZORDEKO LANTALDEA

Euskaltzaindiak, 1993an, 75. urteurreneko ekintzetarako sortu zuen batzorde hau, eta horrela, 1994ko maiatzean III. Ahoskera Jardunaldiak antolatu zituen. 1994ko urrian Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrean parte hartu zuen. Ekintza horietan zehar, oso nabarmen geratu zen hizkuntzaren ahoskera-batasuna oraindik zer urrun dagoen, alor honetan zenbat ikerlan dagoen egiteko eta bes-tetik, zer nolako interesa sortzen duen gai honek euskaldungoaren barnean, bereziki komunikabi-deen esparruan. Hori guztia kontuan harturik, Ahoskera batzordeari jarraipena eman beharra ikusi zuen Euskaltzaindiak. Aurrelanak prestatzeko, batzorde horri atxikitako lantaldea ere sortu da.

Aldiro-aldira lantaldea biltzen da ikerketak egiteko, eta dagokionean proposamena egiteko. Urtean zehar 6 bilera egin ditu lantalde honek.

Prosodia aztertu

Aurreko urtean prestatutako zirriborroa oinarritzat harturik, ondoren aipatzen diren arloak, batez ere, osatu eta landu ditu Ahoskera lantaldeak.

Hizkera-mailen azterketa egin. Hau da, hizketa eta hizkuntzaren arteko muga eta zubi den errealitatea aintzat hartuz bideratu eta bide batez, lantaldeko lankideen eskutik sor daitez-keen zailtasun didaktikoak ere aintzat hartu.

Prosodiaren alderdi korapilatsuak landu. Prosodiaren garrantzia azpimarratu da behin eta berriro, hizketa ez baita letraka egiten; esaldiak dira hiztunek sortzen dituztenak. Aztertu da nola irakatsi hitz andana horiek erritmo, azentu eta intonazio eruedetan txertatzen. Gauzak ez baitira konpontzen azentuaren kokalekua aurkitzearekin. Euskal azentua dela eta zenbait puntu izan dira aztergai:

- a) sistemak bat baino gehiago dira,
- b) ez da prosodikoki erregularra izaten,
- c) lexikoaren eta gramatikaren aldetik ez da erabat sistematikoa eta denean ere, sintaxiaren aldetik aldakorregia da, eta
- d) aldagai akustikoak ez dabilta beti batera.

Ariketa-motak landu. Aurrekoari lotuta, zer nola jokatu irakaskuntzan, euskal neurri eta doinuak gordeaz eta estandarra horiekin guztiekin bateragarria eginez. Horretarako euskal prosodiaren bereizgarri oinarritzkoenak non sustraitzen diren jakitea izan da garrantzizkoena. Ondoren lantaldekideek ekarritako ariketa-mota ezberdinak landu dira bileretan, esal-diaren kantuan eta funtsean erritmoan oinarrituz, eta kontsonante eta bokal kateak hor bar-nean txertatuz.

Ondorioak. Prosodia egokia nahi bada, eta ugaritzen ari diren eredu berriak -gazteleraren edo frantsesaren eruedetan sustraitzen direnak- baztertu, beharrezkotzat jo du lantaldeak ahoskera esaldietan irakastea eta ez hitz solteak, arazo zenbait saihesteko: esate baterako, galdera zuzenen intonazioaz egiten diren zehar galderak, diptongoak, hiato arazoak, hotsen ezabatzeak...

IV. Ahoskera Jardunaldiak

Euskaltzaindiaren II. Euskalegunen 75. urteurrenean, 1998ko irailaren 25ean eta 26an egin dira, Donezteben, herriko udal liburutegian, IV. Ahoskera Jardunaldiak. Hitzaldi eta txosten hauek irakurri dira:

- Dolors Poch, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko irakasle katedradunak: "La standarización de la pronunciación y la variabilidad lingüística".
- Juan Ignacio Hualdek, Iñaki Gamindek eta Gorka Elordietak: "Euskal azentuak".
- Miren Lourdes Oñederrak eta Pilartxo Etxeberriak: "Prosodiaren oraina eta ahoskera arauak".



Doneztebeko udal liburutegian, 1998-IX-26an, IV. Ahoskera Jardunaldiak; ezkerretik eskuinera: Jean Haritschelhar, Pilartxo Etxeberria, Miren Lourdes Oñederra.

- Adelaida Kintanak, Jon Aurrek, Juan Carlos Hernandezek eta Jon Kortabarriak: "Ahoskeraren araugintza irakaskuntzan".
- Asier Larrinaga, Euskal Telebistako ordezkariak: "Ahoskeraren araugintza komunikabi-deetan".
- Julian Beloki, Euskadi Irratiko ordezkariak: "Ahoskera arauak egunerokoan".

Jardunaldi hauetan 79 lagun bildu dira, eta irakurri diren hitzaldiak eta txostenak, ohi beza-la, *Euskera* aldizkarian argitaratu ditu Euskaltzaindiak (ikus *Euskera*, 1998, 2, 379-474. orr.).

Araugaia aurkeztu

Ahoskera lantaldeak prosodia, kontsonante eta bokalen ahoskera estandarrari buruzko proposamena, lehenik Euskara Batuko batzordeari aurkeztu ondoren, gero euskaltzain osoen bil-kurara pasatu da.

Gai honen inguruan urrats hauek egin dira:

- 1998ko otsailean proposamena aurkeztu dio Ahoskera lantaldeak Euskara Batuko batzordeari, eta horrek otsailaren 27ko euskaltzain osoen batzarrean banatu du "Ahoskera batuaz" izeneko txostena.
- 1998ko martxoaren 27ko euskaltzain osoen batzarrean Ahoskera batzordeburuak azaldu du otsailean banatutako proposamena. Batzar horretan zenbait ohar egin zaio proposamen horri, nahiz eta oro har euskaltzainak ados agertu diren txostenarekin.
- 1998ko maiatzaren 29ko euskaltzain osoen batzarrean izan dira Ahoskera batzordeburua eta idazkaria, eta ahoskera batuari buruzko txosten osatua aurkeztu dute: "Euskara batuaren ahoskera zaindua" izenekoa.
- 1998ko ekainaren 26an egindako euskaltzain osoen batzarrean, Ahoskera lantaldearen azken proposamenari zenbait ohar egin ondoren, ontzat eman da gai horri buruzko Euskaltzaindiaren gomendioa "Euskara Batuaren ahoskera zaindua" izenburupean.

II.2. JAGON SAILA

Jagon sailak 1998an 9 bilera egin ditu.

III. Jagon Topaketak

Hiru ekintza burutu dira arlo honetan: III. Jagon Topaketak, inkesta egitea eta erabilera oke-
rrez ohartaraztea.

1.1. III. Jagon Topaketak

Euskaltzaindiaren II. Euskalegunen 75. urteurrenean, Donezteben egin dira, herriko udal
liburutegian, III. Jagon Topaketak, 1998ko irailaren 25ean. Miren Azkarate sailburuak
"Euskaltzaindiaren araugintza: zalantza eta abarren argibidea" izeneko txostena irakurri du.
1997ko txosten osotua da



Doneztebeko udal liburutegian, 1998-IX-25ean, III. Jagon Topaketak; ezkerretik eskuinera: Joxe Ramon Zubimendi, Miren Azkarate.

1.2. Inkesta

Geroago azalduko diren Barne Jardunaldietan Jagon sailak euskalgintzako profesionalen
alor ezberdinetako kezkak eta beharrak biltzeko ardurak banatzea erabaki du, azpiatal hauek berei-
ziz:

- Itzulpengintza, argitaletxeak eta herri-aldizkariak
- Komunikabide nagusiak
- Euskaltegiak
- Hezkuntza
- Ipar Euskal Herria
- EAEko Herri-administrazioa (HAEE-IVAP)
- Nafarroako Herri-administrazioa (INAP)

Atal bakoitzari arduradun bat egotzi zaio, eta kasuan kasuko arduraduna bere esparruko gunera zuzendu da idatziz, Jagon sailburuak eta idazkariak sinatutako aurkezpen-eskutitzarekin. Eskutitz honek Euskaltzaindiaren Zuzendaritzaren onarpena jaso du.

Aurkezpen-eskutitz horretan, zenbait gogoetaren ondoren, azkenean, hau galdetu da:
"Zertan da, zuen alorrean, araugintzaren eta euskararen kalitatearen arazoa?
Zer laguntza behar duzue Euskaltzaindiarengandik?"

Komunikabideetatik eta euskaltegietatik jasotako eskabideekin, bi txosten hauek aurkeztu dituzte Jagon sailean horien ardura hartu dutenek:

- Igone Etxebarriak "Komunikabideak" izeneko lau orrialdeko txostena.
- Dinonisio Amundarainek "Euskaltegietakoen dudak eta iradokizunak" izeneko hamazazpi orrialdeko txostena.

1.3. Erabilera okerreaz ohartarazi

- Euskal Herriko Unibertsitateko hauta-probetan ageri den hizkuntzaren erabilera kaskarra dela eta, alor horretako arduradunei Jagon sailaren kezka adierazi zaie.
- Irakaskuntzaren beheragoko mailetan nabari den euskararen maila erkina, sarritan akatsez josia ikusirik, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak irakasleak trebatzeko duen GARA-TU programaren arduradunei ere Jagon sailaren kezka adierazi zaie.

Corpusa biltzeaz

Euskaltzaindira, hizkuntzaren erabilerari buruzko zalantzez gain, araei buruzko galderak ere etortzen dira. Azken urteotako hizkuntza-erabakien berri ematea ez da hain zaila, baina bai aspaldikoei buruzko argibideak ematea. Hau da, kontsulten datu-basean, emandako kasuan kasuko erantzunak ez ezik, Euskaltzaindiak hasiera-hasieratik hartutako erabakiak ere tokia izan behar luketela uste du Jagon sailak. Horretarako, lehen urrats moduan, Jagon sailaren 1999ko egitekoen artean "Euskaltzaindiak bere sorreratik hartutako hizkuntza-erabakiak jasotzen eta biltzen" hastea proposatu dio Euskaltzaindiari, eta Erakundeak onartu du.

Jagon Sailaren birmoldaketaz

Beste zenbait erakundetako (Ikastolen Elkartek, EITB, sindikatuak... eta abarretako) hainbat profesionalen euskara-maila desegokiaren aurrean kezka adieraztea ez ezik, Jagon sailak zerbait gehiago egitea dagokiola uste du, hots, osabideak eskaini behar dituela. Baina, bestetik Jagon sailak gaur egun ez du bere burua behar besteko baliabidez hornitua ikusten eskari horiei behar bezala erantzuteko.

Honen aurrean, sailburuak Jagon saila gerora begira bitan banatzea proposatu du: hizkuntzaren *estatus*-az arduratuko den azpisaila, batetik, eta hizkuntzaren *corpus*-ari buruzkoa, bestetik. Urte honi dagokionez, hala ere, sailak bere barnean lantaldeak sortzea erabaki du eraginkortasuna hobetzeko.

Jagon sailak barne-jardunaldiak egin ditu 1998ko urriaren 23an, sailaren birmoldaketaz, eta sailkideek txosten hauek aurkeztu dituzte:

- Miren Azkarate: "Jagon sailaren hurrengo bi urteetako egitekoez"
- Joxe Ramon Zubimendi: "Jagon sailaren garapen-proposamena"
- Xabier Mendiguren: "Euskararen kalitatea eta euskal erakundeekiko harremanak"
- Juan Luis Goikoetxea: "Noiz eta non erabili *ere* eta noiz eta non *ere bai*"
- Erramun Baxok: "Euskaltzaindiaren zeregina Ipar Euskal Herrian"
- Andres Urrutia: "Corpus baten nekeak eta desnekeak".

Hizkuntzaren kalitatea zaintzeko baliabideak

- Eusko Jaurlaritzako Euskararen Aholku Batzordeak prestatutako "Euskara biziberritzeko plan nagusia" aztertu du Jagon sailak, eta plan horretan *euskararen corpusaz eta kalitateaz* esaten denarekin bat etorri dira sailkideak, hori baita, hain zuzen, Jagon saila azken urteotan bideratu nahian dabilen arloa.
- Datorren urteari begira, hizkuntzaren kalitateaz jasotzen diren kontsulten arloan Euskaltzaindiak zerbitzu hobea eskaini ahal izateko, aparteko diru-baliabideak lortzeko gestioak egin ditu Jagon sailak Erakundearen kudeatzailearekin batera.

Bestelakoak

Aurreko ataletan hizkuntzaren erabileraren inguruan egindako lanak azaldu dira. Ondoren, burutu diren bestelako gestioak edo lanak aurkezten dira, batez ere hizkuntzaren estatusarekikoak:

- Presoei Espainia eta Frantziako kartzeletan euskara erabiltzeko jartzen zaizkien eragozpenak direla eta, bi Estatuetak Justizia Ministroei bidali beharreko gutun-proposamena aurkeztu dio Jagon sailak Euskaltzaindiari.
- NANeko datuak euskaraz jartzerakoan gertatzen diren eragozpenak direla eta, dagokion Administrazioaren aurrean euskal lurraldeen izenak euskal grafian ager daitezen eskabi-dea egitea proposatu dio Jagon Sailak Euskaltzaindiari.
- Iparraldean euskara normalizatzeko sortu den "Deiadar" izeneko mugimenduari atxiki-mendua adierazi dio Jagon Sailak Euskaltzaindiaren izenean.
- Euskaltzaindia eta Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluarekiko harremanetan Jagon saileko idazkaria izan da, Erakundearen ordezkari gisa.

III. Erakunde zerbitzuak

III.1. Sarrera

III.2. Egoitza

III.3. Ordezkaritzak

III.3.1. Donostiakoa

III.3.2. Gasteizkoa

III.3.3. Iruñekoa

III.3.4. Baionakoa

III.4. Azkue Biblioteka


III.4.1. Azkue Biblioteka zerbitzua

III.4.2. Azkue Biblioteka batzordea

III.5. Argitalpenak

III.5.1. Argitalpen batzordea

III.5.2. Argitalpenen banaketa zerbitzua




III. ERAKUNDE ZERBITZUAK

III.1. SARRERA

Hizkuntzaren Akademia bezala euskararen arautzearen eta normaltzearen alor garrantzitsu bat dagokio Euskaltzaindiari. Hori dela eta, Euskaltzaindiaren jardunak hiru alor lantzen ditu: Erakundearen barnera begira, Zuzendaritza, Batzordeak eta Barne Zerbitzuak; beste erakundeei zuzenduak: Herri Administrazio, unibertsitate, enpresa publiko, kultur elkarte eta beste; edozein herritarri eskaintzen dizkionak.

Bai egoitzan, bai ordezkartzetan baliabide informatikoak martxan jartzeko plangintza orokorra burutu da. Horretarako aditua den enpresa batek prestatu du inplantazio egitasmoa, Eusko Jaurlaritzaren onikusiarekin. Herri Aginteez 1999rako aurrekontuen zatirik handiena ziurtatzeko borondatea erakutsi dute.

"Euskaltzaindiaren alde" fundazioa sortzeko lehen urratsak eman dira, arautegi, eraketa eta beste. Lege-Ekonomia batzordea eta Zuzendaritza horretan aritu dira. Era honetako Fundazioak diru baliabideak kudeatzeko ezinbesteko tresna bihurtu dira gaur egun inguruko Akademietan ere.



III.2. EGOITZA

Erabilera

Bilboko Plaza Barrira 6.072 pertsona etorri dira 1998. urtean. Euskaltzaindiaren zerbitzuez baliatzera hurbildu dira gehienbat. Onomastikari buruzko aholku edo ziurtagiriak izan dira eskara nagusiak. Azkue Biblioteka izan da beste zerbitzu emankor bat. Horrezaz gain, aipatzekoa da etengabe bisitari taldeak izan direla egoitza ikusten. Areto nagusia ere kultura erakunde eta elkarteei irekia egon da hitzaldi, aurkezpen, bilkura eta prentsaurreko zenbait egin direlarik.

Egoitzako 1998ko bisitariak

ADMINISTRAZIOA	1.182
BIBLIOTEKA	951
SARRERA	807
EGITASMOAK	195
BESTELAKOAK	1.740
Ordutegi arruntetik kanpora	1.197
GUZTIRA	6.072

Aretoaren erabilera

Areto nagusia ekintza askotarako erabiltzen da, Erakundearenak direnez gainera. Euskal kulturaren inguruko ekintzetarako erabili ohi da aretoa, jarrita dagoen prozedura betez. Ondoren adierazten diren elkarteek erabili dute aretoa aurtan:

- Bilbo Zaharra Euskaltegiak askotan erabili du aretoa euskara-ikasleei gai ezberdinetako hitzaldiak eskaintzeko: bertsolaritza, ipuin-kontaketa, etab.
- Bilboko Udalak hiriko jaietako ospakizunetarako erabili du.
- Euskal Idazleen Elkarteak antolatu duen "Literatura lantegia" izeneko ikastaroa eman da zenbait egunetan.

Zuzendaritzaren kokagunea

Erakundearen gobernu batzorde den aldetik, egitasmoen arta izatea eta, orobat, barne funtzionamenduaren agintea dagokio Zuzendaritzari. Egoitzan du bere kokagunea.

Hilean bi aldiz biltzen da, gutxienez, eta egoitzatik idazkariordeak antolatzen du kudeaketa dagokion kargudunarekin, hau da, euskaltzainburu, buruorde, idazkari, diruzainarekin eta eragile guztiekin.

Batzordeen eta egitasmoen koordinazio zerbitzua

Eragile teknikariaren egiteko zuzena da egitasmo eta batzorde akademikoen lanen jarraipenaz arduratzea. Egiten diren lanen berri ematen die idazkariorde-kudeatzaileari lehendabizi, Zuzendaritzari aldiro-aldiro eta ezarritako epeetan Herri Administrazioei.

Eragile teknikariari dagokio noizean behin batzordeen bileretara joatea, bilera agiriak eta txostenak jasotzea eta hauetatik behar direnak argitalpen eragileari pasatzea. Egitasmoen ekintza planak eskuratzea eta bateratzea; lanen errendapen txostenak burutzea; hileroko batzarretako hizkuntza-gaiak prestatzea, idazkariordeari laguntzea, bereziki, Euskara Batuko batzordearekiko dei eta koordinazio lanean aritzea, eragilearen egitekoak dira.

Herri Aginteekin sinatutako Hitzarmenaren arabera, Batzorde Teknikoarekiko egitasmo-harremanak ere eragile teknikariak burutzen ditu.

Albiste Orria

Euskaltzaindiaren barneko hileroko informazio-boletina da aldizkari hau. 1998an zehar 31.etik 40.era zenbakiak atera dira. Bertan, Erakundearen lanak, bilerak, egitasmoak, erakundear-teko harremanak, ospakizunak, jardunaldiak, liburu-aurrezpenak, sari-banaketak, hitzarmenak, akordioak, txosten eta adierazpen garrantzitsuenak azaltzen dira. Aldizkari hau eragile teknikariak prestatzen du eta idazkariorde-kudeatzaileak zuzendu eta osotu ondoren, banatzen da.

III.3. ORDEZKARITZAK

III.3.1. DONOSTIAKOA

Gipuzkoako ordezkariak bere ohiko zereginak bete ditu, bai batzordeei zor zaien laguntza eskaintzerakoan, bai gizarteari eman beharreko zerbitzuetan.

Erakundearen azpiegitura

Euskaltzaindiaren plangintzan bi eginkizun daude Donostiako ordezkariaren bizkar daukanak, erakundearen antolakuntzak hala eskatuta.

Herrialde honetan eta gehienbat Donostian egiten dira bilera asko eta asko. Bertako bulego-idazkariak arduratu dira batzordeei behar den azpiegitura ematen.

Urtarrilean: Euskara Batua, Literatura Ikerketa, Hizkuntz Atlasa, Herri Literatura eta hileko osoko batzarra.

Otsailean: Gramatika, Euskara Batua, Jagon Saila, Literatura Ikerketa, Hizkuntz Atlasa eta Herri Literatura.

Martxoan: Euskara Batua, Literatura Ikerketa, Gramatika, Zuzendaritza, Hizkuntz Atlasa eta Herri Literatura.

Apirilean: Jagon Saila, Zuzendaritza, Gramatika, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura.

Maiatzean: Gramatika, Zuzendaritza, Jagon Saila, Herri Literatura eta Euskara Batua.

Ekainean: Gramatika, Euskara Batua, Herri Literatura, Literatura Ikerketa, Zuzendaritza, Ahoskera eta hileko osoko batzarra.

Uztailean: Gramatika, Jagon Saila eta Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa.

Irailan: Euskara Batua, Ahoskera, Literatura Ikerketa, Zuzendaritza eta Herri Literatura.

Urrian: Gramatika, Literatura Ikerketa, Euskara Batua, Jagon Saila (Barne Jardunaldiak), Herri Literatura, Argitalpenak, Zuzendaritza eta hileko osoko batzarra.

Azaroan: Gramatika, Jagon Saila, Euskara Batua, Literatura Ikerketa eta Herri Literatura.

Abenduan: Euskara Batua, Gramatika, Jagon Saila eta Herri Literatura.

Bestalde, ordezkariak honetan bi prentsaurreko eman dira: bata, urtarrilaren 23an, Euskaltzaindiak 1998rako duen egitaraua adierazteko; eta bigarrena, azaroaren 3an, Tolosan Herri Literatura azpibatzeriak antolatu dituen jardunaldien aurkezpena egiteko.

Aipatu beharra dago, baita ere, Euskal Herriko Atlaseko ikerlari bi, ordezkariak honetan beren lanlekua zutenak, tokiz aldatu direla, egoitza berrira joanez. Hau dela eta, Gipuzkoako ordezkariak Donostian egingo diren hileroko batzarretarako, batzorde-bileretako eta prentsaurrekotarako erabili nahi du Euskaltzaindiak, Diputaziora joatea ospakizunetarako utziaz. Horretarako zenbait urrats ematen hasi da Euskaltzaindia ordezkarietan: konponketak egiteko, zoruaren azala berritzeko, hormak pintatzeko eta mahaiak eta aulkiak erosteko.

Beste erakunde eta jendearekiko harremanak

Harreman ezin hobeak izan ditu ordezkariak honek Diputazioarekin. Gipuzkoako erakunde nagusiak eutsi dio orain arteko maila oparoari, ordezkariari lekua eta mantenua eskainiz, osoen bilkurak Jauregian eginez eta zenbait batzorderen bilerak ere Diputazioko aretoetan moldatuz. Aipatzekoa, baita ere, agertu diguten erabakia eta ekinbidea ordezkariak berritzeko.

Ordezkariak honetatik egin da, baita ere, Euskaltzaindiaren ordezkapena zenbait ekintza kulturaletan, ordezkaria han izan delarik erakundearen izenean:

- Azkoitiko udaletxean bilerak, Aizkibelen mendeurrena prestatzeko, martxoaren 2an eta 18an.
- Deustuko Unibertsitatean, Donostiako *campus*-ean, ikasturtearen hasiera, irailaren 30ean.
- Kilometroak 98, Tolosan, urriaren 4an.
- Giza eta Gizarte Zientzien Saria 1998, Aita Villasante zelarik saridun, Miramar Jauregian, urriaren 6an.
- Etxaide jaunaren liburutegiaz jabetzeko, urriaren 9an.
- Antzerki Topaketak, Azpeitian, abenduaren 3an.

Barne-lanak

Euskal Deituren Izendegia argitaratu denetik, deiturei buruzko ziurtagiririk ia ez da egiten, Izendegian ez datorren abizenen baten kasuan ez bada.

Kontsulta ugari etortzen da Erregistro Zibiletatik deiturei buruz, eta Izendegiari buruz; eta berdin pertsona jakinengandik ere, kasuistika luzea sortzen delarik izen-deituren berritzearen inguruan.

Argitalpen zerbitzua bezeroei hurbiltzeko, salgai daude ordezkariak Euskaltzaindiaren lanik eskatuenak, aldian-aldian ekartzen direlarik erakundearen argitalpen berriak.

III.3.2. GASTEIZKO ORDEZKARITZA

Ohi bezala, Gasteizko bulego honek hiru ardatz izan ditu kontuan bere eguneroko lanetan: Erakundearen zerbitzu orokorretako eginkizunetan; bulego honi atxekitako batzordeek funtzionamendurako behar dituzten baliabideak eskuratzen; foru eta udal administrazioetako sail desberdinei, elkarre eta hiritarrei hurbileko harreman eta argibideak ematen. Gainera, herrialde honetan izan diren gertakizun ofizial eta kultura ekintza garrantzitsuetan Akademiaren ordezkari gisa jardun du.

Akademi lanak

Batzorde eta zerbitzuak.

Argitalpen zerbitzua.

- *Aita Juan Mateo de Zavalaren Sermoiak (II)*, Euskararen Lekukoak saileko liburukia prestatzen aritu da ordezkarietako bulego arduraduna, Aita Luis Villasanteren zuzendaritzapean.
- Gerardo Lopez de Guereñuren *Voces Alavesas* liburuaren berrargitalpena prestatu da. Lan horretan aritu da Elena Martinez de Madina, Henrike Knörren zuzendaritzapean.

Jagon saila.

Ordezkaritzara heldu diren salaketak eta kezkak (hizkuntzaren erabilpen ez egokiagatik, errotilu ofizialak elebarkarrez daudelako edo hizkuntza akatsak dituztelako) jaso eta, behar izan denean, bideratu dira.

Prensa zerbitzua.

Bulego arduradunak lagundu ohi dio prentsa-zerbitzuburuari honen zereginetan eta aurtengo Akademiaren ekintza hauetan zerbitzu honen ardura eraman du:

- Euskaltzaindiaren II. Euskalegunen 75. urteurrena, Donezteben, irailean.
- V. Herri Literatura Jardunaldiak, Tolosan, azaroan.

Batzordeak.

Gramatika batzordeari eta Ahoskera lantaldeari azpiegitura zerbitzua eskaini zaie Arabako ordezkarietatik: bilera-deiak, agiriak, txostenak eta bestelako materiala banatuz.

Oroitidazkia.

Azken urteetan bezala, bulegoko arduradunak parte hartu du, idazkariorde-kudeatzaile eta eragile teknikariarekin batera, Akademiaren memoriaren erredakzioan eta zuzenketa lanetan.

Gasteizko toponimia.

Hiriburuko Udalarekin sinatutako hitzarmenari esker 1996an sortu zen bertako toponimia biltzeko bost lankidez osotutako lantaldea, Henrike Knörren zuzendaritzapean. Dagoeneko, Arabako Artxibategi Probintziala, Udal Artxibategia eta Probintziako Artxibategia arakatu dituzte, 140.000 toponimoren fitxa informatikoak sortuz. Honekin batera, datu hauen elaboraketa informatikoa egiten ari da, bigarren fase batean dagokion mailaketa egiteko, mapetan kokatzeko eta inguruko lanak bideratzeko.

Erakundeentzako eta kanporako lanak

Orokorrak.

Ziurtagiriak. Euskaltzaindiaren beste bulegoetan bezala, izen eta deituren agiri ugari egin dira. Aipatu behar da aurten Onomastika batzordetik argitaratu den *Euskal Deituren Izendegia* lanari esker, Euskaltzatzaindiaren eta Erregistro Zibilen lana erabat erraztu eta arindu dela. Bestalde, ponte-izenei dagozkien galdera eta eskabide gehienak, exonimoei, hots, jatorriz euskal izenak ez direnei buruzkoak izan dira. Gero eta gehiago dira Euskal Herritik kanpoko Erregistro Zibiletatik jasotzen diren galderak.

Hizkuntzaren erabilerari buruzko kontsulta zehatzak Gramatika batzordera pasatu dira eta dagozkien erantzun edo irizpenak eragile teknikariaren bitartez bideratu. Onomastika edo hizte-gigintzari buruzkoak prozedura berberaz zuritu dira.

Ordezkaritzaren erabilera. Arabako zenbait elkartek eskatuta, Euskaltzaindiaren aretoa erabili da bilerak eta aurkezpenak egiteko.

Udalak

- Gasteizko Udalarekin sinatutako hitzarmenari lotuta dauden lanen errendapena eman du Euskaltzaindiak txosten baten bidez. Lana aurkezteko, Akademiaren Zuzendaritza bildu da Jose Angel Cuerda alkate jaunarekin eta Arantxa Zenarruzabeitia kultura zinegotziarekin.
- Euskarari buruzko argibideak. Udal zerbitzu desberdinetatik heldu diren galderei erantzun zaie.
- Arabako Udal eta Administrazio Batzordeek Gasteizko bulegora jo dute euren izen ofizialari buruzko irizpenak eskatuz.
- Ponte-izenak eta deituren aldaketak egiteko ziurtagiriak ere zuzenean eskatu dituzte hainbat herritatik.
- Ekintza kulturalak. Euskaltzaindiaren partaidetza eskatu denean, lurralde honen ordezkaria den Patxi Goenaga euskaltzainak bete du zeregin hau.

III.3.3. IRUÑEKO ORDEZKARITZA

Akademi eta barne lanak

Euskaltzaindiak Donezteben 1923an egindako II. Euskalegunen 75. urteurrena dela-eta, Malerrekako herri nagusi horretan gauzatutako ekitaldien antolaketan parte zuzena hartu du ordezkariak honek. Aipatu beharra dago ekintza hauetarako Doneztebeko Udalak emandako laguntza eta Malerreka mankomunitateko Euskara Zerbitzuaren partaidetza.

Onomastika batzordeak Iruñeko ordezkarietan egin ditu, batez beste, egoitzarekin txandatu, bere ohiko bilera erdiak.

Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako Zuzendaritzak argitaratzeko, Patxi Ondarra euskaltzainak prestatu du Polikarpo Iraizoizkoaren *Hitz Lauzko Lanak I* liburua. Ordezkaritzako bulego arduradunaren laguntza izan du lan honetan. *Hitz Lauzko Lanak II* ere nahi-ko aurreratua da.

Prentsan hainbat adierazpen eta mezu zabaldu da ordezkarietatik. Hartutako eskakizunei erantzuna emanez zenbait txosten, adierazpen eta ziurtagiri luzatu dira.

Harremanak

- Iruñeko Udalarekin 1997an sinatutako hitzarmena eguneratu ondoren, 1998koa ere berriro sinatu dute Javier Chorrut alkateak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak. Ordezkaririk, Fernando Pérez de Viñaspre Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiarekin zenbait bilera izan ditu urtean zehar, Foru eta Akademia erakundearen arteko harremani buruzko gaiez aritzeko, besteak beste, argitalpenen proposamenez, hizkuntza eskakizunen Foru-dekretugaiaz, Jagon sailak jarritako harreman-sarea eratzekeko administrazio-baliabideez. Harreman horien ondorioetariko bat, Polikarpo Iraizoizkoaren *Hitz Neurtuzko Lanak* liburua argitaratzea izan da.
- Aipatzekoa da, aldi berean, Tomas Yerro Gobernuaren Kultura Zuzendari Nagusiak ordezkariak honekin izandako begirunea, *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariaren ale guztiak oparitzeaz gainera, harpidedun berezien artean sartu duelako ordezkariak.
- Andres Iñigok Euskaltzaindia ordezkatu du lurralde honetako hainbat ekintzatan, besteak beste, *Nafarroa Oinez*-en, Jaso ikastolaren eraikitzean, *Euskalherria Irratiaren* "Larreko" sariaren epaimahaian, Euskararen Gizarte Kontseiluak Nafarroan egin duen aurkezpenean eta "Bai euskarari" ekitaldi nagusian, Jose María Jimeno Jurio euskaltzain ohorezkoari Eusko Ikaskuntzak emandako "Manuel Lekuona" sarian, Jose Mari Satrustegi euskaltzaina "Nazioarteko hizkuntza akademiaren ohorezko bazkide" izendapenean. Zenbait irratsaio, hitzaldi, prentsa artikulua eta bestetan parte hartu du.
- Euskaltzaindiak bere egitasmoak aurrera eramateko behar dituen laguntzak lortzeko egin dituen gestioen artean, Nafarroan dauden Kutxa biekin izan dituen harremanetan, ordezkariak ere parte hartu du.
- Patziku Perurena euskaltzain urgazlea izan da Iruñeko Udalak urtero antolatzen duen Literatura lehiaketako epaimahaikide.

- Ordezkaritzaren eskariari erantzunez, Nafar Gobernuako Estatistika Zerbitzuak Euskaltzaindiaren esku utzi du, euskarri informatiko gisa, bere Onomastika batzordeko lanetarako hain garrantzitsua den Nafarroako biztanleriaren izen-deituren informazio osoa eta eguneratua.

Euskararen egoera Nafarroan

- 573/1976 Dekretuan ezarria dago Euskaltzaindiari dagokiola hizkuntza eskubideak jagoatea. Hortaz, Akademiak bere kezka eta kexa adierazi du euskubide horiek kaltetuak izan direnean edo behar bezala bermatu ez direnean, eta bereziki, Nafarroako Gobernuak FM irratiaren frekuentzien esleipenean euskararekin izandako jokaeraren aurrean. Euskaltzainburua 1998an bi aldiz zuzendu zaio Miguel Sanz gobernuburuari hartu dituen erabakien gainean Euskaltzaindiaren desadostasuna adieraziz eta hartarako bilera bat eskatuz. Erantzuna ezezkoa izan da.
- Nafarroako Euskararen Kontseilukideak, Jean Haritschelhar berezko kidea eta Jose M. Satrustegi Erakundearen ordezkaria, 1998. urtean bakarrik bilkura batera izan dira deituak.
- Irakaskuntza mailan, Nafarroako Gobernuak orain dela hogeituz geroztik martxan dagoen Berako "Labiaga" ikastolari, DBH ikasketen ofizialtasuna eragozteaz gainera, Iruñeko Donibane auzoan hamazazpi haurri bertako ikastetxean euskaraz hezitzeko aukera ukatu die.
- Senideak elkarteak Nafarroako ordezkartzan aurkeztutako idazki baten bitartez, Euskaltzaindiari jakinarazi dio zenbait espetxeratutako euskara ahoz nahiz idatziz erabiltzeko dituzten mugak eta oztupoak. Euskaltzaindia Justizia ministroari zuzendu zaio hiritar horien hizkuntza eskubideen bermea eskatuz.
- 1998ko apirilean jakitera eman da Epaitegi Gorenak Nafarroako Auzitegi Nagusiaren epai bat -Barañaingo Udalak 1994ko oposizio dei batean euskararen ezagutzea eskatzen zuen lanpostu batzuei buruzkoa, hain zuzen- bertanbehera utzi duela. Euskaltzaindiak Barañaingo Udalarari publikoki adierazi zion bere atxikimendua.

III.3.4. BAIONAKO ORDEZKARITZA

Aldaira

1988. urtean Baionako Euskaltzaindiaren ordezkariak aldaira egin du. Behin-behineko tokian jarri da, Thiers karrikan 18ko 1. solairuan, Garcia-Larratxe familiak bi urterentzat utzi lekuan.

Osoko bilkura

Euskaltzaindiak urtean behin Iparraldean egiten duen bilkura maiatzaren 29an izan da Baionan, ordezkariaren egoitza berria estreinatuz.

Egun bereko ageriko batzarrean Garcia-Larratxe familiari Euskaltzaindiaren eskerronezko domina eskeini dio euskaltzainburuak.

Ondotik, Pierre Andiazabalek irakurri du Thomas Ithürry euskaltzain urgazle zenaren hilberri txostena.

Gero Marijan Minaberri ohorezko euskaltzain berriari dagokion agiria eman dio euskaltzainburuak.

Azkenik, Piarres Larzabal zenaren obren 7. liburukia, haren oroitzapenek osatua, aurkeztu du Piarres Xarriton prestatzaileak.

Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)

Iparraldean Euskaltzaindiak, ohi bezala, udako eta udazkeneko EGA-ren azterketak prestatu ditu. Aurreko urteetako kopuru beretsua izan da aurkeztutakoena: 56 izen-emate eta 43 gainditze 1997an eta 60 izen-emate eta 48 gainditze 1998an.

Ohiko lan eta harremanak

Baionako ordezkariak Akademiaren zerbitzu orokorretako lanetan egoitzarekin eta beste hiriburuetako ordezkariarekin lan egin du.

Hizkuntza Atlas lantaldeko kide batek ordezkariarekin lan egiteaz gain, Dialektologia-Atlasgintza batzordearen bilera batzuk ere bertan egin dira aurten.

Eugène Goyhenetxeren *Onomastique du Pays Basque Nord, XVIII. Siècle* lanaren prestatzarekin jarraitu da.

Erakundearen lanen ezagutarazteko asmoz, Saran eta Donibane-Lohizunen antolatzen diren liburu erakusketetan parte hartu du ordezkariarekin honek.

Iparraldeko zenbait kultur erakunderekin ere ohiko harremanak izan ditu.

III.4. AZKUE BIBLIOTEKA

III.4.1. AZKUE BIBLIOTEKA ZERBITZUA

Euskaltzaindiak berak edo bere edozein batzordek egindako eskariez aparte, honako hauek aipatuko dira:

Biblioteka eta artxiboa

Erabiltzaile-kopurua: 951 lagun, horietatik 35 artxiboa kontsultatzeko.

Erabiltzaile berriak: 121.

Eskaera bibliografiko arrunta: 1200 dokumentu.

Barne-mailegu zerbitzua: 202 dokumentu.

Erreprografia zerbitzua: 30.000 fotokopia, 6 mikrofilm bikoizketa eta 79 argazki bikoizketa.

Dokumentazio eta informazio zerbitzua

Bitan banatzen da, eskatutako informazioaren sakontasunaren arabera:

a) Ahozko kontsulta bibliografiko arruntak: gutxi gorabehera 600 bat.

b) Idatzizko kontsulta bibliografiko bereziak: 91. Horietatik hirurogeita sei partikularrenak izan dira (mota guztietako ikerleek egindakoak) eta hogeita bost, erakunde edo elkarteek egindakoak. Hauek dira idatzizko kontsulta bereziak egin dituztenak:

Euskal Herrikoak:

- AEK
- *Berbaro* aldizkaria
- EITB
- Elhuyar Kultur Elkartea
- Eresbil
- Euskal Kultur Erakundea
- Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseilua
- Eusko Ikaskuntza
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila
- Gerediaga Elkartea
- Nafarroako Gobernuko Hezkuntza eta Kultura Departamentua
- Udalak: Eibar, Oñati eta Larraun
- Txintxarri Ikastola (Elorrio)
- UNESCOren etxea (Bilbo)

Euskal Herritik kanpokoak:

- Bigarren Hezkuntzako Institutuak: Lleida, Madrid, Arjona eta Sevilla
- CIEMEN
- Editorial Santillana
- Instituto de Estudios Altoaragoneses
- Sociedad Española de Amigos de la Hemeroteca

Eskurapenak

Liburuak

	ALEAK	BALIOA
Erosiak	785	2.387.473 pta.
Dohainekoak	225	319.036 pta.
Trukezkoak	477	794.042 pta.
Orotara	1.487	3.500.741 pta.

Aldizkariak

Une honetan Azkue Bibliotekak 1.540 izenburu ditu, horietatik 385 bizirik eta 1.182 hilda. Bizirik daudenetatik hartzen dira trukez 76, doan 214, eta ordaindurik 68. Azken horietatik 48 harpidetzaren bitartez hartzen dira.

Aurten orotara 22 izenburu berri eta 1.577 ale sartu dira, eta kostuari dagokionez, 652.332 pta. erabili dira.

Erosketa bereziak

Erosketa hauek bereziki aipagarriak dira:

- *El libro de oro de la patria*, 1934
- Lespy, Vastin: *Dictionnaire béarnais ancien et moderne*, 1887koaren berrargitalpena (1998)
- *Memorias de Garibay*, 1854
- *Atlas of the World's languages*, 1994
- *Atlas Linguarum Europae*, 1983-1997
- *Atlas Linguistique Roman*, 1996
- *Euskal Erria* aldizkaria, 1900/1910
- *Euskal Erria* aldizkariaren berrargitalpena

Azkue Bibliotekako katalogazio zerbitzua

Lehendik katalogatu gabe dauden funtsak katalogatzen jarraitu da. 1998an 8.000 dokumentu katalogatu behar ziren. Hauexek dira emaitzak:

1. hiruhilabetea	1.953 dokumentu katalogatu dira
2. hiruhilabetea	2.690 dokumentu katalogatu dira
3. hiruhilabetea	1.907 dokumentu katalogatu dira
4. hiruhilabetea	1.703 dokumentu katalogatu dira
Guztira	8.253 dokumentu katalogatu dira

Beraz, plangintza osorik betetzeaz gain, 253 dokumentu gehiago katalogatu dira. Hala ere, kontuan hartu behar da abendua bereziki zenbait zuzenketa egiteko erabili ohi dela, eta horiek ez direla osorik bukatu.

Bestelakoak

Georges Lacomberen artxiboa

Joan den urteko oroitidazkian aipatzen zen hitzarmenari jarraiki, Georges Lacomberen artxiboa digitalizatzeari ekin zaio, Eusko Jaurlaritzaren Irargi zerbitzuarekin elkarlanean.

Yon Etxaideren jatorrizko idazlanen dohaintza


Yon Etxaide, euskal idazle eta ohorezko euskaltzain zenaren jatorrizko idazlanak Euskaltzaindiaren Azkue Bibliotekara ekarri dira. Taiutu ondoren artxiboan ezarri dira, ikerleen kontsultagai. Ondare horren berri zehatza *Euskera* agerkarian eman da.



Egoitzan, 1998-XI-27an, Jon Etxaideren artxiboa Euskaltzaindiari emate-ekitaldia; ezkerretik eskuinera: Patxi Goenaga, Jean Haritschelhar, Pilar Rekalde (Jon Etxaideren alarguna), Pruden Gartzia.

Erakusketak

– Pedro Añibarroren 250. urteurrenaren ospakizunean egindako erakusketa antolatu du.



Areatzako udal liburutegian, 1998-VII-24an: Añibarroren liburu eta idazlanei buruzko erakusketa.

– Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokan Gerediaga Elkarteak Federiko Krutwigi buruz antolatutako erakusketan parte hartu du.

***Bai Euskarari* kanpaina**

Euskal Gizarte Erakundeen Kontseiluak *Bai Euskarari* kanpainaren baitan Euskaltzaindiari egindako omenaldian parte hartu.

Erakundeekiko harremanak

Honako erakundeei egin zaie bisitaldi ofiziala: Eusko Jaurlaritza (Kultura Saila), Eusko Legebiltzarra, Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Bizkaiko Aldundia, Gipuzkoako Aldundia, Sancho el Sabio erakundea eta Bilboko Udala.

Talde bisitariak

Hogeita hiru talde izan dira Euskaltzaindiaren Bilboko Egoitza eta Azkue Biblioteka ezagutzen, guztira 951 pertsona. Talde horiei harrera egitea eta ordu beteko bisitaldi gidatua egitea Azkue Bibliotekako langileen kontura joan da. Hona hemen talde horietako zenbait:

AEKren euskaltegiak (Barakaldo, Portugalete, Santurtzi); Bilbo Zaharra, Mikelats, Zornotzako Udal Euskaltegia, Ulibarri Euskaltegia eta Bilboko IRALE; Batxilergo Institutuak (Portugalete, Elorrio, Zornotza, Bilboko Botica Vieja, San Adrian, Iurreta, Ignacio Ellakuria...).

III.4.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

Batzorde honek, guztira, 7 bilera egin ditu urtean zehar.

Egindako lana

Azken urteotan batzordearen lan nagusia euskaraz katalogatzerakoan sortzen diren arazoak aztertzea eta erabakitzea izan da. Aurten ere indar gehienak honetan eman dira. Aurreko urtean hasitako hausnarketaren ondorioz, eztabaida eta erabakitze prozesua sistematizatzeko ahalegin haundia egin da. Horren emaitza nagusia "katalogazio-erregelak" eta "terminologia-zerrendak" dira; alegia, alor honi dagozkion lanak bi kategoria berri horien bitartez antolatzen dira.

– "Katalogazio-erregelak" ABK (Azkue Bibliotekaren Katalogoa) egiteko erabiltzen diren irizpide nagusien bilduma da. *Euskaltzaindiaren Arauak* eredutzat hartuta, batzordea saiatu da orain arte hartutako erabaki guztiak irizpide garbi eta sistematiko batzuetara biltzen, nahiz eta bere unean hautatutako lan-prozedurak berez dakarren etengabeko berrikusketa. Horretaz gain, 1998tik aurrera ABK n hartzen diren erabaki guztiak katalogazio-erregela baten forma izango dute.

– "Terminologia-zerrendak" ere orain arte onartutako termino guztiak egitura informatiko berri batera egokitzearen ondorio dira. Horretarako, termino guztiak *Acces* motako datu-base batean bildu dira, bere kudeaketa sistematizatzeko aldera. Horretaz gain, termino bakoitzaren fitxaren diseinuan gaztelania, frantses eta ingelesezko ordainak zehaztu dira, eta terminoaren beste zenbait ezaugarri. 1998tik aurrera onartzen diren termino guztiak forma hori izango dute.

Kasu biotan, zabalik dauden egiturak dira, ABKren baitan dagoen etengabeko berrikusketa printzipioaren arabera erraz alda daitezkeelarik, hala behar izanez gero. Hauek dira tresna berri bi horien araberrako emaitzak:


a) Katalogazioari buruzko hamar erregela berri eztabaidatu eta onartu dira eta beste bat eztabaidatu ondoren mahai gainean utzi.

b) Terminologiari buruzko bederatzi termino-zerrenda eztabaidatu eta onartu dira, guztira 1.430 gai-sarrera hartzen dutelarik.

Bestelako lanak

Batzordeak beste lan hauek ere burutu ditu urtean zehar egindako bileretan:

- *Liburuak maileguan uzteari buruzko arau osagarriak* eztabaidatu eta onartu dira, horrela Bibliotekan zegoen hutsunea betez.
- *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren soinuak materiala erabiltzeko araudia eta eskaera-orriak* eztabaidatu eta onartu dira, Dialektologia batzordearekin adostuta.
- *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasaren soinuak materiala*-ren behin betiko aurkibidea onartu da, Dialektologia batzordearekin elkarlanean.
- *Txomin Agirrerren biblioteka. Auñemendiko Lorea*-ren mendeurrenean parte hartu da, Txomin Agirrerren biblioteka dohaintza gisa jasoz eta katalogatuz.
- *Eresbil-ekiko elkarlana*. Azkue Bibliotekak musika-liburuak katalogatu ditu, erreferentzia moduan Eresbil-en erdarazko katalogoaz baliatuz.



III.5. ARGITALPENAK

III.5.1. ARGITALPEN BATZORDEA

Argitalpen batzordeak, 1998an zehar, bi bilera egin ditu Jean Haritschelhar euskaltzainbu-ruaren gidaritzapean. Ondorioz, Euskaltzaindiaren Edizio Zerbitzuak, ondoren zehazten diren argi- talpenak bideratu eta kaleratu ditu, argitalpen eragilearen ardurapean:

1. *Euskera* (1997, 3)

Liburuki honetan irailetik abendura arteko batzar-agiriak, hizkuntza-arauak, hitzarmenak, irizpenak, txostenak, sari-emanaldiak eta berriak bildu dira. Guztira 394 orrialde. Hauek dira gai nagusiak: Pompeu Fabra, Koldo Mitxelena eta Federiko Krutwigi egindako omenaldiak, hizkuntza-erabakiak, Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindiaren literatura-sariak, Banco Bilbao Vizcaya-k eta Euskal Herriko Unibertsitateak Euskaltzaindiarekin egindako hitzarmenak, Euskaltzaindiaren bat- ztar-agiriak, Onomastika eta Gramatika batzordeek emandako irizpenak eta bestelako zenbait txos- ten.

2. *Euskera* (1998, 1)

Urtariletik maiatza artekoak bildu dira liburuki honetan. Guztira 326 orrialde. Gai nagusiak: Andres Maria Urrutia Badiola Euskaltzaindian sartzea, hizkuntza-erabakiak, Jose Frantzisko Aizkibelen II. mendeurrena, Onomastika batzordeak emandako irizpenak, hilberri-txostenak, Bilbao Bizkaia Kutxa - Euskaltzaindiaren 1997ko Azkue literatura-saria, Dialektologia, Literatura eta Ahoskerari buruzko txostenak eta bestelako zenbait txosten.

3. *Euskera* (1998, 2)

Agerkari honek urteko ekainetik urrira bitartekoak jasotzen ditu. Gai behinenak hauek dira: Pedro Antonio Añibarroren 250. urteurrena, Euskaltzaindiaren II. Euskalegunen 75. urteurrena, IV. Ahoskera Jardunaldiak eta berauekiko ondorioak, Juan A. Mogelen omenaldia, Euskaltzaindiaren adierazpenak eta agiriak, Arauak, Euskaltzaindia eta Iberdrolaren arteko hitzarmena, Euskaltzaindiak Eusko Legebiltzarrari egindako bisita, Onomastika batzordearen diktamenak, Gramatika batzordearen irizpenak, *Euskal Deitura Izendegia*-ren aurkezpena, Arauak: CD-ROM interaktiboaren aurkezpena, berri batzuk eta Maria Dolores Agirre Aizpuru andrearen hilberria.

4. *Euskaltzaindiaren Arauak*:

XI, XII eta XIII. sortetan argitaratu dira:

XI:

- 77. Hiztegi Batua: *ihabali - irudi*
- 78. Aditz Laguntzaile Batua
- 79. Hiztegi Batua: *irudialdatu - jorratzaile*

XII:

- 80. Hiztegi Batua: *josi - koala*
- 81. Hiztegi Batua: *koartel - kontsultatu*
- 82. Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoak
- 83. Hiztegi Batua: *kontsumitu - lan*
- 84. Hiztegi Batua: *lanabes - lekoa*

XIII:

85. Adizki perifrastikoetako adizki nagusiaren forma
86. Hiztegi Batua: *lekora - lozorro*
87. Euskara Batuaren ahoskera zaindua
88. Hiztegi Batua: *lubaki - makina*
89. Hiztegi Batua: *makineria - matrikulatu*

5. *Euskaltzaindiaren 1997ko Oroitidazkia*. Urrian kaleratu da *Euskaltzaindiaren Oroitidazkia, 1997 / Memoria 1997 de la Real Academia de la Lengua Vasca* izeneko liburua. Guztira, 314 orrialde. Erakundeak iaz arlo hauetan burututako ekintzak eskaintzen dira: ekintza orokorrak (hizkuntza erabakiak eta gertakari aipagarriak), sail eta batzordeek egindako lana, erakundeak bere egoitza eta ordezkartzen bidez eskaintako zerbitzuak, argitalpenak, aurrekontuei buruzko informazioa, Akademiak beste erakunde batzuekin dituen harremanak, Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia.

6. *Euskaltzaindiaren Arauak*: 1. karpeta Arauak. Bertan, 518 orrialdetan argitaratutako 75 hizkuntza-erabaki CD-ROM interaktiboan eskaintzen dira.



7. *Euskal Deituren Izendegia / Nomenclátor de Apellidos Vascos*: 280 orrialde. Liburuan 10.000tik gora deitura ematen dira gaztelaniaz eta euskal grafian. Onomastika batzordearen emaitza da; Mikel Gorrotxategi Nieto Onomastika batzordeko idazkariak paratua, eta Justizia Ministerioaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren diru-laguntzaz argitaratua.

8. *Antoine d'Abbadie 1897-1997 Congrès International. Eusko Ikaskuntza. Ezohiko Kongresua. Euskaltzaindia. XIV. Biltzarra*. Eusko Ikaskuntzarekin koedizioan argitaratua. 1997ko irailaren 24tik 27ra Hendaian egin zen Euskaltzaindiaren XIV. Biltzarreko hitzaldiak eta txostenak biltzen dira bertan. Liburuak 706 orrialde ditu.

9. *Voces alavesas*. Gerardo López de Guereñu; bigarren argitaraldia; 318 orrialde. Liburu horretan Arabako erromantzean eta euskararen erabilitako lau mila hitz inguru eskaintzen dira. Argitaraldi honen gidaritzan Henrike Knörrek izan du, Izaskun Rekalde eta Elena Martinez de Madinaren laguntzarekin.

10. *Argitalpen Katalogoa*-ren eranskina. Katalogo hau 1997an argitaratuz geroztik kaleratutako hamalau libururen berri ematen da eranskin honetan.

Saritutako lanen argitalpena:

11. *Ipuinak eta bertsoak* izeneko liburukian 1996ko R.M. Azkue Saria irabazitako idazlanak argitaratu dira. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioak eta Euskaltzaindiak urtero antolatzen duten sari hori gazteentzat da, batetik 10-13 urte bitartekoentzat eta, bestetik, 14-17koentzat. 54 orrialdeko liburuska honetan bost narrazio eta sei olerki argitaratu dira.

12. *Hizkuntza, kultura eta gizartea*. Joxe Manuel Odriozola Lizarribar. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren 1997ko Mikel Zarate saiakera-sariaren irabazlea; 184 orrialde. Euskal Herriaren egoerari buruzko diagnostikoa egiten du egileak metafora hau erabiliz: euskara da bihotza, kultura arteriak eta gorputza, berriz, herria. Hiruok daukaten elkarren beharra, biziko badira, eta elkarren arteko oreka ere ezinbestekoa da.

13. *Nada de agua en Madrid*. Pello Esnal Ormaetxea. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren 1997ko Txomin Agirre eleberrri-sariaren irabazlea; 150 orrialde. Kontakizuna 1977an kokatzen da, apaiz langile baten gorabeherak azalduz. Orain dela hogeituro egoera jakin baten erretratu bizi eta xaloa da hor kontatzen dena. Baina, bestetik, hori gaurko begiz ikusia, eta gaurko ikuspegiak beste irakurketa sakonago eta patxadatsuago bati irekitzen dio atea.

14. *Kea urruntzean*. Mirari García de Cortazar. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren 1997ko Felipe Arrese Beitia olerki-sariaren irabazlea; 52 orrialde. Idazleak azken boladan idatzitako olerki-bilduma da. Olerki solteak dira sorta honetan bildu dituenak, gaiaren eta estiloaren aldetik elkarren arteko lotura nabarmenik ez dutenak.

15. *Burdindenda*. Karlos Linazasoro Izagirre. Bilbao Bizkaia Kutxa Fundazioaren eta Euskaltzaindiaren 1997ko Toribio Altzaga antzerki-saria; 50 orrialde. Obra honetan tragedia eta komedia nahasten dira, bi pertsonaia bakarrek darabilten sasi-erudiziozko ekitaldian zehar. Espazio xumean bi aktore; ironia eta umore garratzez komunikazioa eta inkomunikazioa planteatzen dira; mugak labankorrek dira, eta ezer ez da finkoa.



III.5.2. ARGITALPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Argitalpen salmenta

Banaketa

Euskaltzaindiak argitalpenen banaketa gehien bat banatzaileen bitartez egiten du. Hala ere *Euskaltzaindiaren Arauak* eta *Euskera* agerkariaren kasuetan harpidetza sistema erabiltzen da, ondorioz argitaletxe-bezero harremana zuzenagoa delarik.

Euskaltzaindiaren Arauak-en harpidedunak 2.210 dira. 1998an, argitalpen hau CD-ROM formatoan ere argitaratu da eta hauetariko 402 ale saldu dira.

Gainerako argitalpenei dagokienez, liburudendei 85 liburu saldu zaizkie, banatzaileei 1.342 eta gizabanakoei 160.

Ohiko salmentekin eta *Euskaltzaindiaren Arauen* zein *Euskera* agerkariaren harpidetzekin lortutako diru emaitza 17.131.768 pezetakoa izan da.

Merkataritza ikuspegia

Gehien saldu diren argitalpenak *Euskaltzaindiaren Arauak CD-ROMean*, *Euskal deituren Izendegia*, *Oinak*, *Euskal Gramatika Laburra*, *Ipuin Beltzak*, *Itsasoa eta ni* eta *Cancionero Popular Vasco* izan dira.

Argitalpen salmentaren kokapen geografikoaz, gehientsuenak Euskal Herrian saldu direla esan behar da, %94,5a eta kanpoan gainontzeko %5,5a.

Aurreko urtearekin konparatuz gero, %4,2 gehiago saldu da. Honetan sakonduz zenbait zehaztapen egitea komeni da:

– *Euskaltzaindiaren Arauak* argitalpenaren harpidetzak handituz doaz etengabe. Era berean, *Euskera* agerkariaren harpidetzak nabarmen gutxituz doaz. Beraz, bi joera hauek nolabaiteko oreka batera eramaten dute.

Bestalde, 1998an argitalpen berri gehienak urte amaierarantz burutu dira. Ondorioz azken hauen salmentak hurrengo urtean nabaritzen dira.

Euskera agerkariari dagokionez :

- 1998. urte amaieran 310 harpidedun daude
- Hauetatik, 141 Euskaltzaindiaren Arauen harpidedunak dira.

Dohaineko banaketa

Argitalpen Banaketa Zerbitzuak, 1998an, 1.934 argitalpen banatu ditu dohainik. Banaturiko aleak multzo desberdinetan sailkatu dira:

- Erakunde ofizial, Institutio eta Herri Agintariak: 441 ale
- Euskaltzainak eta batzordekideak: 442 ale
- Truke harremanetan: 513 ale
- Liburuen egileak: 220 ale

- Komunikabide eta kultur elkarteak: 207 ale
- Partikularrak: 111 ale.

Truke harremani dagokienez, *Euskera* agerkaria 97 erakunde eta instituzioekin trukutzen da, 55 Euskal Herrikoak eta 42 kanpokoak.

Azokak

Durangoko XXXIII. Euskal Liburu eta Disko Azoka

Durangoko Azoka abenduaren 3, 4, 5, 6, 7 eta 8an izan da eta bi saltokitan izan da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau. 1998ko argitalpenetatik *Euskaltzaindiaren Arauak CD-ROMean*, *Euskal Deituren Izendegia* eta *Antoine d'Abbadie: Biltzar Agiriak* aurkeztu ziren bertan. Baita 1998ko argitalpen guztiak aurkezten dituen katalogo-eranskina ere.

Azoka honetan, Euskaltzaindiak, urteko argitalpenak aurkeztu eta gainontzeko argitalpenak erakutsi nahi izaten dizkie bisitariei. Helburu nagusia hau izanik ere, salmentak bultzatzeko ere baliatzen da azoka hau.

Beste zenbait azoka

Euskaltzaindiaren Zerbitzu hau Durangotik aparte Euskal Herrian izan diren beste zenbait liburu eta disko azokatan izan ez arren, gure argitalpenak, banatzaileen bitartez hainbatetan izan dira salgai :

- Udaberri partean: Gernika, Urretxu, Bilbo eta Santurtziko azoketan
- Uda partean: Donostia, Ondarroa, Lekeitio, Zarautz eta Hondarribiko azoketan
- Udazken partean: Tolosa, Eibar, Hondarribia eta Galdakaoko azoketan.

Urte osoan zehar izan diren azoketan, Euskaltzaindiaren argitalpenik salduenak *Euskal Gramatika Laburra*, *Cancionero Popular Vasco (I-II)*, *Agosti Chaoren bizitza eta idazlanak* eta *Hitz-Egin* euskera ikasteko metodotik: *Oinak*, *Itsasoa* eta *Ni...*

Argitalpen banaketako enpresetako arduradunen esanetan, Euskaltzaindiaren publiko espezializatuarentzat eginak dira. Beste aldetik, euskarazko literatura ere, oro har, ez dago, dirudienez, bere unerik onenean. Erakundearen argitalpenek ere ezin, bada, dinamika horri ihes egin.

Gordailua

Euskaltzaindiak Etxebarrin daukan liburu-gordailuak, besteak beste 2 funtzio nagusi betetzen ditu:

Saltzeko liburuen gordailua

1998ko uztailean gordailuan bildurik dauden argitalpen guztien inbentario zehatza egin da eta handik ateratako ondorioetako bat argitalpen batzuen "stock" egoeraz jabetzea izan zen. Aipagarrienak *Bertsolari Txapelketa: 1982*; *El libro blanco del euskera*; *Euskal Herriko udalen izendegia* eta *IKER 2: Pierres Laffiteri omenaldia*.

1997an, aipatutako liburuen eta beste batzuen stock-a gainditzeko argitalpenen eskaintza berezia egin zen. Eskaintza hau ikastetxe eta euskararen alorrean lanean ari diren hainbat elkarte eta instituziotara zuzendua izan zen. Ildo honi jarraiki, hurrengo urteetarako izan daitezkeen aukeak aztertzen ari dira.


Artxiboa

Artxiboa, betetzen duen funtzioen arabera, bi alorretan bana daiteke:

- Barne-artxiboa: Euskaltzaindiak, urteetan zehar bildu, landu eta ekoiztu duen dokumentazio sailkatua gordetzeko erabiltzen dena.

- Kanpo-artxiboa: Kanpoko erakunde, elkarte, talde eta abarri erosiz, trukatzuz zein dohainik jasoz, bildu diren material sailkatuen gordetegia, alegia, liburukiak, aldizkariak, egunkariak, posterrak eta abar gordetzeko erabiltzen dena.

Kanpo-artxiboari dagokionez, 1998an, gordailuan zeuden Euskaltzaindiaren bibliotekako egunkarien eta aldizkarien hemeroteca berrantolatu egin da.



IV. AURREKONTUAK

EKONOMIA ZERBITZUA: 1998. URTEKO BALANTZEA

Euskaltzaindiak, 1997ko uztailaren 18an, Donostian egindako osoen batzarrean 384 milioiko Aurrekontu bateratua onartu zuen 1998. urterako, gero, urtearen joanean 362.435.490,- pezetako kopuruan gauzatu dena. Gutxitze bat egon bada ere, lanean ari diren batzorde eta egitasmoez begiz jotako eginkizunak aurrera eraman ahal izan dituzte. Baliabide ugariago izan balira, behar bada, bururatutako beste lan eta ekintza batzuk ere loratu eta gauzatuko ziratekeen, baina, Euskaltzaindia, bere garaiari erabaki zuenez, dituen baliabideen arabera arituko da eta ez du bere burua, salbuespenak salbuespen, zorretan sartuko. Hala izan dadin, Aurrekontuaren egokitze eta betetzearen jarraipen zuzena eta hurbila Diruzaintzak eta Zuzendaritzak egiten dute.

Aurrekontuaren dirusartze nagusiek Herri Administrazio ezberdinetan dute iturburua: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Foru Diputazioak, Hezkuntza Ministerioa eta, kopuru txikiagorekin bada ere, Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Orokorra.


Hauez gain, urteak joan ahala, bestelako dirusartze batzuk ere lortzen ari da Euskaltzaindia egitasmo berezien aurrekontuak oso-osorik edo zati handi batean estaltzeko adinakoak. Dirulaguntza hauek hitzarmenen bidez gauzatzen dira: Aurten Bai Fundazioa, BBK Fundazioa, BBV Fundazioa, Euskal Herriko Unibertsitatea; Gasteizko Udala, Iberdrola eta abar. Finantziabide pribatuen babesak ugaltzen joatea nahi luke Euskaltzaindiak.

1998. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

DIRUIRTETEA		352.802.316,-
1. Ibilgetu materiala		4.081.299,-
2. Epe laburreko maileguen amortizazioa		16.090.416,-
3. Kanpo zerbitzuak		60.241.184,-
- Ikerketa gastuak	17.566.525,-	
- Egitura batzordeak	10.660.752,-	
- Alokatzekak	1.096.734,-	
- Konpontzeak eta zaintzea	6.929.350,-	
- Zerbitzu profesionalak alokatzea	5.988.855,-	
- Bidalketak	2.098.195,-	
- Aseguruak	666.923,-	
- Banku zerbitzuak	754.565,-	
- Kanpo harremanak	507.964,-	
- Horniketak	12.404.600,-	
- Bestelako funtzionamendu gastuak	1.566.721,-	
4. Batzorde eta egitasmoak		126.446.924,-
- Iker / Jagon Sailak	127.474,-	
- Euskara Batua	1.976.599,-	
- Hiztegi Batua	6.432.866,-	
- Orotariko Euskal Hiztegia	61.245.299,-	
- Gramatika	3.788.319,-	
- Ahoskera	687.533,-	
- Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa	21.460.506,-	
- Onomastika	11.446.973,-	
- Herri Literatura	2.418.111,-	
- Literatura Ikerketa	1.499.561,-	
- Jagon	1.051.634,-	
- Azkue biblioteka	14.140.049,-	
- Lexiko Erizpideen Finkapena	172.000,-	
5. Zergak		368.664,-
6. Gizabanakoei ordainketak		129.893.325,-
7. Beste zenbait gestio gastu		4.184.615,-
8. Finantza gastuak		1.062.329,-
9. Amortizazio zuzkidurak		7.356.040,-
10. Hornidurentzako zuzkidurak		3.077.520,-

1998. URTEKO KONTU ERRENDAPENA

DIRUSARTZEAK		352.802.316,-
0. Salmenten itzulketak		(1.387.553,-)
1. Ustiaketarako sartzeak		301.444.858,-
1.1. Herri Aginteak		275.001.265,-
- Hezkuntza Ministerioa	100.000.000,-	
- Eusko Jaurlaritza	99.784.880,-	
- Nafarroako Gobernua	17.669.900,-	
- Arabako Foru Diputazioa	7.700.492,-	
- Bizkaiko Foru Diputazioa	28.030.593,-	
- Gipuzkoa Foru Diputazioa	17.669.900,-	
- Iparraldeko Herri Aginteak	2.500.000,-	
- Udalak	1.645.500,-	
1.2. Gizabanakoak		148.700,-
1.3. Batzorde eta egitasmoetarako laguntzak		17.104.726,-
1.4. Argitalpenetarako laguntzak		1.315.672,-
1.5. Bestelako sarrerak		7.874.495,-
2. Kudeaketa sarrerak		24.457.540,-
- Salmentak	17.394.592,-	
- Ziurtagiri, txosten, irizpen,...	1.000.198,-	
- Gestio arrunteko beste sarrerak	6.062.750,-	
3. Sarrera finantziarioak		16.287.471,-
3.1. Korrituak		37.471,-
3.2. Maileguetarako laguntzak		16.250.000,-
Eusko Jaurlaritza	9.490.488,-	
Nafarroako Gobernua	1.680.575,-	
Arabako Foru Diputazioa	732.387,-	
Bizkaiko Foru Diputazioa	2.665.975,-	
Gipuzkoako Foru Diputazioa	1.680.575,-	
4. Ibilgetu mozkinak		12.000.000,-



V. Herri Administrazio eta erakundeekikoak

V.1. EAEko eta Nafarroako Herri Aginteak eta Euskaltzaindia

V.2. Udalak

V.3. Euskal Herriko Unibertsitatea

V.1. EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ETA NAFARROAKO HERRI AGINTEAK ETA EUSKALTZAINDIA

Urteko protokolo eranskina

Urteko protokolo eranskina 1998ko urtarrilaren 2an sinatu da Herri Administrazio eta Euskaltzaindiaren ordezkarien artean. Urtean zehar Akademiak egingo dituen lanak jasotzen dira bertan, eta ordainez, Herri administrazioek zenbat diru emango duten eta zertarako. Dokumentua hauek sinatu dute: Josune Ariztondo, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordeak; Fernando Perez de Viñaspre, Nafarroako Gobernuaren Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusiak; Tomas Uribeetxebarria, Bizkaiko Kultura foru diputatuak; Koruko Aizarna, Gipuzkoako Kultura eta Euskara foru diputatuak; Mikel Mintegi Arabako Kultura eta Euskara foru diputatuak eta Jean Haritschelhar euskaltzainburuak.

Jarraipen batzordea

Aipatutako agintariek eta euskaltzainburuak 1995eko urrian sinatu zuten bost urteko iraupena duen II. Hitzarmena. Hitzarmen hori urtero sinatzen den protokolo edo eranskinean gauzatzen da, eta horren segimendua egiteko biltzen da Jarraipen batzordea, honako kide hauek osotua: Herri Administrazioetatik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako sailburuordea eta Ikerketarako eta Euskara Sustatzeko zuzendaria; Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Politikarako zuzendari nagusia, eta Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Kultura diputatuak; Euskaltzainditik, euskaltzainburua eta idazkaria botoarekin eta buruordea, diruzaina, idazkariorde-kudeatzailea eta ekonomia eragilea. Aurten bi aldiz bildu da batzorde hau:

- 1998ko irailaren 4an bildu da, Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako sailordetzan. Gai hauek jorratu dira: Batzorde Teknikoak Euskaltzaindiaren batzordeen eta Egitasmoen 1997ko urte osoko eta 1998ko 1. hiruhileko lanez egindako txostena, eta 1997ko dirukontuen errendapena; Euskaltzaindiaren informatizatzeko-plan orokorra eta *Orotariko Euskal Hiztegia*-rena bereziki.
- 1998ko abenduaren 17an bildu da batzorde hau toki berean, eta gai hauek aztertu ditu: Euskaltzaindiaren batzordeen eta egitasmoen 1998ko bigarren eta hirugarren hiruhileko lanez Batzorde Teknikoak egindako txosten teknikoa eta 1999rako egitasmoak eta aurrekontuak; Onomastika batzordearen lanak; Euskaltzaindiaren informatizatzeko-plana; Euskaltzaindia eta UZEIren amankomuneko datutegiaren erabilera; eta, 1999ko protokoloa.

Euskaltzaindiaren informatizatzeko-plan berria dela-eta, zenbait bilera egin dira Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzan. Bilera horietan Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailak, Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkarteak (EJIE), *Centrisa* informatika enpresak eta Euskaltzaindiak parte hartu dute.

Batzorde teknikoaren eta Euskaltzaindiaren arteko bilerak

Hitzarmenaren Batzorde Teknikoa, Hitzarmenaren jarraipen-lanean aritzen da. Une honetan hiru teknikariek osatzen dute jarraipenerako batzorde hau: Joseba Alcalde, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Herri Administrazio Sailekoak; Koro Urkizu, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailordetzakoak eta Joseba Erkizia, Gipuzkoako Foru Diputaziokoak; Euskaltzaindia-

ren aldetik, Juan Jose Zearreta, ekonomia eragileak eta Pello Telleria, eragile teknikariak parte hartu dute batzorde honekin izandako harremanetan.

Batzorde Teknikoak urtean zehar bi bilera egin ditu Euskaltzaindiko ordezkariekin, eta gai hauek izan dira hizpide nagusiak harreman horietan:

– Batzorde eta egitasmoen 1997ko laugarren hiruhileko errendapen-txostenak aztertu dira banan-banan.

– 1997ko urte osoko errendapen-txostenak aztertu dira.

– *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren informatizatzeko plan berria.

– Batzorde eta egitasmo batzuen 1998ko errendapen-txostenei buruzko informazio osagarria.

– Batzordeen eta egitasmoen 1999ko lan-programak.

– 1999ko protokolo-eranskina aztertu da.

V.2. UDALAK


Araba, Nafarroa eta Gipuzkoako hiriburuetakoa udalekin izan ditu harreman bereziak Euskaltzaindiak. Gasteiz eta Iruñekoei dagozkienak, lurralde ordezkarietako ataletan garatzen dira.

Donostiako Udalak *Orotariko Euskal Hiztegiaren* lantalderako kokagunea aurreko urtean ematea erabakita bazuen ere, 1998an lokalak egokitu ez direnez ezin izan ditu eskuratu, ez baitira erabilgarriak Fermin Calvetón kalean lagatakoak. Ondorioz, gestio berriak hasi ditu Euskaltzaindiak Udalaren Kultura batzordeburuarekin eta Alde Zaharreko PARVISA udal enpresarekin.

Iparraldeko herri andana batek, Euskaltzaindiaren sostengurako bere aurrekontuetatik dirulaguntza eman du, guztira 25.832 libera.

Euskadiko Udalen Elkarteak (EUDELeK) Euskaltzaindiarekin adostu du hitzarmen berezi bat. Honen arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko udal guztien baliagarri, hiri-toponimia finkatzeko aholkularitza eta datu-basea eskainiko du Onomastika batzordeak. Hain zuzen, lantalde bat abian jarriko da berehala.


Honez gain, udal askorekin banan-banako harremanak izan ditu Euskaltzaindiak, onomastika, hiztegi, gramatika eta euskalkie buruzko kontsultak argitzeko.



V.3. EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

Euskal Herriko Unibertsitateak Euskaltzaindiarekin sinatua duen hitzarmenaren arabera, zazpi milioi eta zazpiehun mila pezeta jarri ditu. Honi esker honako argitalpenen kostuaren %50 finantziatu ahal izan da:

- *Toponimia Medieval del País Vasco - III (H-O).*
- *Toponimia Medieval del País Vasco - IV (P-Z).*
- *Morfología del verbo auxiliar Bajonavarro Occidental.*



**VI. Euskaltzaindiaren organigrama eta aurkitegia /
Organigrama y directorio de Euskaltzaindia /
Organigramme et répertoire d'Euskaltzaindia:**

**VI.1. Euskaltzainen eta kargudunen zerrendak /
Relación de académicos y cargos /
Listes des académiciens et des responsables**

**VI.2. Batzordeen zerrendak /
Comisiones académicas /
Commissions de travail d'Euskaltzaindia**

**VI.3. Euskaltzaindiaren organigrama /
Organigrama de la Academia /
Organigramme d'Euskaltzaindia**

**VI.4. Bulego helbideak /
Directorio /
Répertoire**




VI.1. EUSKALTZAINEN ETA KARGUDUNEN ZERRENDAK / RELACION DE ACADÉMICOS Y CARGOS / LISTES DES ACADÉMICIENS ET DES RESPONSABLES

EUSKALTZAIN OSOAK / ACADÉMICOS DE NÚMERO / ACADÉMICIENS TITULAIRES

Patxi Altuna
Jose Antonio Arana Martija
Miren Azkarate
Pierre Charritton
Jean-Louis Davant
Xabier Diharce "Iratzeder"
Patxi Goenaga
Jean Haritschelhar
Xabier Kintana
Henrike Knörr
Federiko Krutwig (+)
Emile Larre

Juan Mari Lekuona
Beñat Oihartzabal
Patxi Ondarra
Txomin Peillen
Pello Salaburu
Juan San Martin
Ibon Sarasola
Jose Mari Satrustegi
Andres Urrutia
Luis Villasante
Patxi Zabaleta
Antonio Zavala



- *Euskaltzaindiaren egoitza, 1998-II-27*: euskaltzain osoak.
- *Sede de la Academia, 27-II-1998*: académicos de número.
- *Siège d'Euskaltzaindia, le 27-II-1998*: les académiciens titulaires.

ZUZENDARITZA / JUNTA DE GOBIERNO / DIRECTION

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua / Presidente / Président
Henrike Knörr, buruordea / Vicepresidente / Vice-président
Patxi Goenaga, idazkaria / Secretario / Secrétaire
Jose Antonio Arana Martija, diruzaina / Tesorero / Trésorier

ORDEZKARIAK / DELEGADOS / DÉLÉGUÉS

Gipuzkoa / Guipúzcoa / Guipuzcoa: Juan Mari Lekuona
Araba / Álava / Alava: Patxi Goenaga
Nafarroa / Navarra / Navarre: Andres Iñigo
Iparraldea / País Vasco Continental / Pays Basque Nord: Pierre Charritton

ERAGILEAK / GESTORES / RESPONSABLES

Jose Luis Lizundia, idazkariorde-kudeatzailea / Vicesecretario-gerente / Secrétaire adjoint
et gérant
Juan Jose Zearreta, ekonomi eragilea / Gestor económico / Responsable économique
Pruden Gartzia, Azkue bibliotekako zuzendaria / Director de la biblioteca Azkue / Directeur
de la bibliothèque Azkue
Ricardo Badiola Uriarte, argitalpen eragilea / Gestor de publicaciones / Responsable des
publications
Pello Telleria, eragile teknikaria / Gestor técnico / Responsable technique

VI.2. BATZORDEEN ZERRENDAK / COMISIONES ACADÉMICAS / COMMISSIONS DE TRAVAIL D'EUSKALTZAINDIA (*)

IKER SAILA / SECCIÓN DE INVESTIGACIÓN / SECTION RECHERCHE

Iker sailburua / Director / Directeur: Beñat Oihartzabal

I. HIZTEGIGINTZA batzordea / Comisión de LEXICOGRAFÍA / Commission DICTIONNAIRE

Buru / Presidente / Président: Ibon Sarasola.

Batzorde hau bi azpibatordetan banatzen da / Esta comisión se divide en dos subcomisiones / Cette commission se divise en deux sous-commissions:

I.1. Orotariko Euskal Hiztegiaren (OEH) lantaldea / Equipo de trabajo del Diccionario General Vasco (OEH) / Groupe de travail du Dictionnaire Général de la langue basque

Arduradun / Responsable / Responsable: Iñaki Segurola

Kideak / Miembros / Membres: Arantza Egia, Gabriel Fraile, Elixabet Kruzeta, Ane Loidi, Ainhoa Otamendi.

I.2. Hiztegi Batuko lantaldea / Equipo de trabajo del Vocabulario Unificado / Groupe de travail du Dictionnaire de la langue unifiée

Arduradun / Responsable / Responsable: Jose Antonio Aduriz

Kideak / Miembros / Membres: Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Jean-Louis Davant, Koro Navarro, Andoni Sagarna, Iñaki Segurola, Miriam Urkia.

II. GRAMATIKA batzordea / Comisión de GRAMÁTICA / Commission GRAMMAIRE

Buru / Presidente / Président: Patxi Altuna

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Jesus Mari Makatzaga

Kideak / Miembros / Membres: Miren Azkarate, Luis Baraiazarra, Pierre Charritton, Andolin Eguzkitza, Patxi Goenaga, Alan King, Jose Mari Larrarte, Maria Pilar Lasarte, Jose Antonio Mujika, Beñat Oihartzabal, Patxi Ondarra, Karnele Rotaetxe, Pello Salaburu.

III. DIALEKTOLOGIA batzordea / Comisión de DIALECTOLOGÍA / Commission DIALECTOLOGIE

Buru / Presidente / Président: Beñat Oihartzabal

(*) Izendapen hauek 1997-1998rako dira / Estos nombramientos son para el bienio 1997-1998 / Ces nominations concernent les années 1997 et 1998.

Atlasgintza lantaldea / Equipo de trabajo del Atlas Lingüístico / Groupe de travail de l'Atlas linguistique

Arduradunak / Responsables / Responsables: Gotzon Aurrekoetxea, Xarles Videgain
Kideak / Miembros / Membres: Isaak Atutxa, Ana Maria Etxaide, Jose M. Etxebarria, Izaskun Etxebeste, Koro Segurola.

IV. ONOMASTIKA batzordea / Comisión de ONOMÁSTICA / Commission ONOMASTIQUE

Buru / Presidente / Président: Henrike Knörr
Idazkari / Secretario / Secrétaire: Mikel Gorrotxategi
Kideak / Miembros / Membres: Andres Iñigo, Jose Luis Lizundia, Patxi Salaberri, Juan San Martin, Jose Mari Satrustegi.

Exonomastika / Exonomástica / Exonomastique

Andolin Eguzkitza, Iñaki Irazabalbeitia, Xabier Kintana, Federiko Krutwig.

Aholkulariak / Asesores / Conseillers

Ricardo Cierbide, Jose Antonio Gonzalez Salazar, Jose Maria Jimeno Jurío, Jean-Baptiste Orpustan, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Patxi Uribarren.

V. LITERATURA batzordea / Comisión de LITERATURA / Commission LITTÉRATURE

Buru / Presidente / Président: Juan Mari Lekuona

V.1. Herri Literatura azpibatzerdea / Subcomisión de Literatura Popular / Sous-commission Littérature populaire

Arduradun / Responsable / Responsable: Juan Mari Lekuona
Idazkari / Secretario / Secrétaire: Pello Esnal
Kideak / Miembros / Membres: Jose Mari Aranalde, Antton Aranburu, Juan Manuel Etxebarria, Jesus Mari Etxezarreta, Jose Mari Iriondo, Xabier Kaltzakorta, Emile Larre, Abel Muniategi, Antonio Zavala, Joxe Ramon Zubimendi.

V.2. Literatura Ikerketa azpibatzerdea / Subcomisión de Investigación Literaria / Sous-commission Recherche littéraire

Arduradun / Responsable / Responsable: Juan Mari Lekuona
Idazkari / Secretario / Secrétaire: Karlos Otegi
Kideak / Miembros / Membres: Xabier Altzibar, Aurelia Arkotxa, Gorka Aulestia, Jon Casenave, Jean Haritschelhar, Juan Cruz Igerabide, Jon Kortazar, Luis Mari Mujika, Lourdes Otaegi, Txomin Peillen, Ana Toledo, Patri Urkizu.

VI. BATZORDE SUNTSIKORRAK: EUSKARA BATUA ETA AHOSKERA / COMISIONES NO PERMANENTES: EUSKARA UNIFICADO Y FONOLOGÍA / COMMISSIONS ON PERMANENTES: BASQUE UNIFIÉ ET PHONÉTIQUE

VI.1. Euskara Batuko batzordea / Comisión de Euskara Unificado / Commission Basque unifié

Buru / Presidente / Président: Pello Salaburu
Idazkari / Secretaria / Secrétaire: Miren Azkarate
Kideak / Miembros / Membres: Patxi Altuna, Xabier Kintana, Beñat Oihartzabal, Ibon Sarasola.

VI.2. Ahoskera azpibatzerdea / Subcomisión de Fonología / Sous-commission Phonétique

Buru / Presidenta / Présidente: Miren Lourdes Oñederra

Idazkari / Secretaria / Secrétaire: Pilartxo Etxebarria

Kideak / Miembros / Membres: Jose Luis Alvarez "Txillardegi", Jean-Louis Davant, Pello Esnal, Juan Manuel Etxebarria, Iñaki Gaminde, Jose Inazio Hualde, Bernhard Hurch, Rosa Miren Pagola, Xarles Videgain.

Lantaldea / Equipo de trabajo / Groupe de travail:

Buru / Presidenta / Présidente: Miren Lourdes Oñederra

Lankideak / Miembros / Collaborateurs: Pilartxo Etxebarria, Igone Etxebarria (EITBko aholkularia / Asesora de EITB / Conseiller à EITB), Jon Kortabarria (Arabako IRALEko irakaslea / Profesor de IRALE en Álava / Professeur à IRALE, Alava), Jon Aurre (Bizkaiko IRALEko irakaslea / Profesor de IRALE en Vizcaya / Professeur à IRALE, Biscaye), Juan Carlos Hernandez (Gipuzkoako IRALEko irakaslea / Profesor de IRALE en Guipúzcoa / Professeur à IRALE, Guipuzcoa), Adelaida Kintana (Nafarroako IBIko irakaslea / Profesora de IBI de Navarra / Professeur à IBI, Navarre).

VII. JAGON SAILA / SECCIÓN TUTELAR / SECTION PROMOTION

Jagon sailburua / Directora / Directrice de la section Promotion: Miren Azkarate

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Joxe Ramon Zubimendi

Kideak / Miembros / Membres: Dionisio Amundarain, Erramun Baxok, Joseba Butron, Pierre Charriton, Igone Etxebarria, Patxi Goenaga, Juan Luis Goikoetxea, Andres Iñigo, Patxi Iñigo, Daniel Landart, Juan Mari Lekuona, Xabier Mendiguren, Manuel M. Ruiz Urrestarazu, Andres Urrutia.

EGITURAZKO BATZORDEAK / COMISIONES ESTRUCTURALES / COMMISSIONS STRUCTURELLES

VIII. ARGITALPEN batzordea / Comisión de PUBLICACIONES / Commission PUBLICATIONS

Buru / Presidente / Président: Jean Haritschelhar

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Ricardo Badiola Uriarte

Kideak / Miembros / Membres: Henrike Knörr, Patxi Goenaga, Jose Antonio Arana Martija, Beñat Oihartzabal, Miren Azkarate, Patxi Altuna, Juan Luis Goikoetxea.

IX. AZKUE BIBLIOTEKA batzordea / Comisión BIBLIOTECA AZKUE / Commission BIBLIOTHÈQUE AZKUE

Buru / Presidente / Président: Jose Antonio Arana Martija

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Pruden Gartzia

Kideak / Miembros / Membres: Andolin Eguzkitza, Sebastián Garcia Trujillo, Henrike Knörr, Jose Mari Larrarte, Juan San Martin.

**X. LEGE-EKONOMIA batzordea / Comisión ECONÓMICO-JURÍDICA / Commission
ÉCONOMICO-JURIDIQUE**

Buru / Presidente / Président: Jean Haritschelhar

Idazkari / Secretario / Secrétaire: Jose Luis Lizundia

Kideak / Miembros / Membres: Patxi Goenaga, Henrike Knörr, Jose Antonio Arana Martija.

**Lege azpibatzordea /
Subcomisión jurídica /
Sous-commission juridique:**


Abel Muniategi
Andres Urrutia
Patxi Zabaleta

**Ekonomia azpibatzordea /
Subcomisión económica /
Sous-commission économique:**

Jon Castañares
Xabier Erdozia
Sebastian Garcia Trujillo
Jose M. Makua Goienetxe
Juan Jose Zearreta, idazkari

**VI.3. EUSKALTZAINDIAREN ORGANIGRAMA / ORGANIGRAMA
DE EUSKALTZAINDIA / ORGANIGRAMME D'EUSKALTZAIN-
DIA**

E U S K A L T



Z A I N D I A

BL É PLÉNIÈRE

GOBIERNO / DIRECTION

SAILBURUAK / DIRECTORES DE SECCIÓN / DIRECTEURS DE SECTION

GERENTE / SECRÉTAIRE ADJOINT GÉRANT
1

EKONOMI ERAGILEA /
GESTOR ECONÓMICO /
RESPONSABLE ÉCONOMIQUE
1

ERAGILE TEKNIKARIA / GESTOR TÉCNICO / RESPONSABLE TECHNIQUE

BATZORDEAK / COMISIONES / COMMISSIONS

ER. AGILEA /
BLIK. CACIONES /
E PU. BPLICATIONS
1

HIZTEGIA
DICCIONARIO
DICTIONNAIRE

HIZKUNTZ ATLASA
ATLAS LINGÜÍSTICO
ATLAS LINGUISTIQUE

BESTE BATZORDEAK
OTRAS COMISIONES
AUTRES COMMISSIONS

ZUZENDARIA
DIRECTOR
DIRECTEUR
1

ZUZENDARI TEKN.
DIRECTORES TÉCNICOS
DIRECTEUR TECHNIQUE
2

TEKNIKARIAK
TÉCNICOS
TECHNICIENS
8

TEKNIKARIAK
TÉCNICOS
TECHNICIENS
2

TEKNIKARIAK
TÉCNICOS
TECHNICIENS
3

MEN. TA ARDURADUNA /
PON. SABLE DE VENTAS /
PON. SABLE DE VENTES
1

ADMINISTRARIA /
ADMINISTRATIVA
1

GARBITZAILEA /
LIMPIADORA /
FEMME DE MÉNAGE
1

VI.4. BULEGOEN HELBIDEAK / DIRECTORIO / RÉPERTOIRE

EGOITZA / SEDE / SIÈGE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: 94-415 81 55
Faxa / Fax: 94-415 81 44
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: info@euskaltzaindia.net
Arduraduna / Responsable / Responsable: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA / BIBLIOTECA AZKUE / BIBLIOTHÈQUE AZKUE

Plaza Barria, 15
48005 BILBO
Telf.: 94-415 27 45
Faxa / Fax: 94-415 00 51
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: azkuebib@euskaltzaindia.net
Zuzendaria / Director / Directeur: Pruden Gartzia

GORDAILUA / ALMACÉN / DÉPÔT

Bilbo-Donostia errepidea, z.g. - 4,5 km
SAGA etxea, 1. solairua
48450 ETXEBARRI (Bizkaia)
Telf.: 94-440 62 58
Arduraduna / Responsable / Responsable: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK / DELEGACIONES / DÉLÉGATIONS

ARABA / ÁLAVA / ALAVA

San Antonio, 41
01005 VITORIA / GASTEIZ
Telf.: 945-23 36 48
Faxa / Fax: 945-23 39 40
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: gasteizordez@euskaltzaindia.net
Ordezkaria / Delegado / Délégue: Patxi Goenaga

GIPUZKOA / GUIPÚZCOA / GUIPUZCOA

Hernani, 15
20004 DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN
Telf.: 943-42 80 50
Faxa / Fax: 943- 42 83 65
Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: donostiaordez@euskaltzaindia.net
Ordezkaria / Delegado / Délégue: Juan Mari Lekuona

NAFARROA / NAVARRA / NAVARRE

Conde Oliveto, 2, 2.

31002 IRUÑEA / PAMPLONA

Telf.: 948-22 34 71

Faxa / Fax: 948-21 07 13

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: iruneaordez@euskaltzaindia.net

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Andres Iñigo

IPARRALDEA / PAIS VASCO CONTINENTAL / PAYS BASQUE NORD

Thiers, 18, 1.

64100 BAIONA

Telf.: 0033(0)-559 25 64 26

Faxa / Fax: 0033(0)-559 59 45 59

Posta elektronikoa / Correo electrónico / Adresse électronique: euskalbai@wanadoo.fr

Ordezkarria / Delegado / Délégué: Pierre Charritton

